2026-11-20 BARIKUA
1.084. ZENBAKIA / 25. URTEA

DURANGALDEKO ALDIZKARIA
ANBOTO.ORG / TOKIKOM.EUS

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
%50 deskontua
2026ko kideetzan

GARENA KONTATZEKO
anboto

AURKEZPENA

Durangoko Azokak euskal kulturaren aurtengo eskaintza zabala aurkeztu du

61. Durangoko Azoka nobedadez beterik dator; ia 1.100 argitalpen aurkeztu eta 311 ekitaldi plazaratuko dituzte. / 2



Durangoko Azokako arduradunak asteon egindako aurkezpenean.

LASTERKETA

Durango Kirol Taldeak Emakumeen Lasterketa antolatu du domekarako atletismo pistaren inguruan / 13



DOKUMENTALA

"Dokumentalak egungo gaiei buruzko gogoeta bultzatu gura du " / 22

PEDRO LUIS SANCHEZ
Alpinista eta zinemagilea





AZAROAREN 25A

"Adimen artifizialak asko erraztu ditu irudi pornografiko faltsuen sorkuntza eta hedapena"

Adimen artifizialak emakumeen aurkako indarkeria digitala handitu du, baimenik bako irudi pornografiko faltsuak sortzea eta zabaltzea erraztuta. Lorena Fernandez Deustuko Unibertsitateko Adimen Artifizialaren Batzordeko arduradunak gai hori landu zuen joan zen asteburuan Durangon, Andereak elkarteak eta Andraguneak antolatutako ekimenean. / 12-13

EUSKARA

GUKAk deituta, euskararen aldeko mosaiko herritarra abenduaren 2an Durangon / 2

AZAROAK 25 / 11-17







Durangoko Azokako eta guneetako arduradunak, martitzeneko prentsaurrekoan.

1.100 nobedade eta 300 ekitaldi, euskal kulturaren erakusleihoan

Abenduaren 4tik 8ra egingo da Durangoko Azoka. "Eskaintza handiaz gozatzera" deitu du Beñat Gaztelurrutiak

Aritz Maldonado DURANGO

Azokaren prestaketa lanak azken txanpan sartu dira. Aurten ere, Landako Gunea erakusmahaiz beterik egongo da. Guztira, 174 partaide etorriko dira eta 286 stand atonduko dituzte. Bertan, 2026an argitaratutako 1.098 nobedade izango dira eskuragarri: 681 liburu, musikagaz loturiko 177 lan, 57 aldizkari eta beste 156 argitalpen, hala nola jolasak, estanpak eta papertegiko produktuak. "Sortzaileen ekarpenari eskerrak, egitarau anitza eta aberatsa izango dugu aurtengo Durangoko Azokan. Horregaitik, jaialdi honetan murgiltzeko eta arakatzeko deia egin gura diegu herritar guztiei, bai ohiko bisitariei, bai kulturazale berriei. Izan ere, Durangoko Azoka, ezagutzen duguna eta askoz ere gehiago da", nabarmendu du Beñat Gaztelurrutia azokako zuzendariak. Bestalde, 311 ekitaldi programatu dituzte, azokako askotariko guneetan plazaratuko direnak. Iazko bideari jarraituta, aurten ere ikuskizun bereziak izango dira Plateruenean iluntze-gauetan: Beire eta Txopet (abenduaren 4an), Mikosis eta Toc (5ean), Peiremans+ (6an) eta Verde Prato, Silitia eta Malakias (7an). Kontzertuez gainera, *Izanen GA!* errezitaldia eta *Gabriel Aresti Mug(h)arri* pieza taularatuko dituzte; 6an Jose Julian Bakedanoren *Oraingoz izen gabe* filma emango dute, estreinatu eta 40 urtera; abenduaren 7an *Maitasuna ez da nahikoa* manifestu poetiko musikatua plazaratuko dute.

Aipaturikoez gainera, Sormen Bekak ere bere lekua izango du. Usue Egia, Ainhoa Olaso eta Mikel Urdangarin iazko irabazleek *Gizaberetxoak gara. Joxe Azurmendiren joanak eta etorriak* komikia aurkeztuko dute. Eta abenduaren 5ean jakinaraziko dute, Talaian, zein den aurtengo irabazlea; musika proiektu bat izango da. Egitarau osoa, *durangokoazoka.eus* atarian.



Martitzenean, manifestaziora deitzeko agerraldia egin zuten Landako Gunean. EHE

EHEk euskararen aldeko borroka "antifaxistara" deitu du Durangon

Ekaitz Herrera DURANGO

Euskal Herrian Euskarazeko eta euskalgintzako eta herri mugimenduko hainbat eragilek agerraldia egin dute asteon, Durangon, manifestaziora deitzeko. Euskararen aldeko borroka "bizkortzera" deitu dute, "kontrako haizea hain harro dabilen garaiotan": "Faxismoak gure herriaren, hizkuntzaren nahiz bestelako eskubide sozialen aurka egin du, eta garai haiei gorazar egiten eta nostalgiaz begiratzen dieten ahotsak geroago eta ozenago eta gertuago sumatzen ditugu gaur egun". Horregaitik, 60ko hamarkadatik honako pizkundea "jarrera antikfrankistan" lerrokatu zelako, orain ere horretarako deia egin dute manifestazioaren deitzaileek. Euskararen aldeko borroka "antifaxista" aldarrikatu dute, "zapalkuntza guztiak gaindituko dituen Euskal Herri euskalduna eraiki" gura dutelako. Abenduaren 5ean Durangoko kaleetan manifestatuko dira, 13:30ean, Landako Gunetik hasita. 50 elkarte baino gehiago eta herri mugimenduko hainbat ordezkari batuko dira mobilizazioara. Berbaro, Euskalgintzaren Kontseilua, AEK, UEMA, Ikastolen Elkartea, Elkar Fundazioa, Pantailak Euskaraz, Hau Pittu Hau konpartsa, Errigora, Bilgune Feminista, Ernai, Kontseilu Sozialista, Jardun, Gure Esku, ELA, LAB eta Steilas, besteak beste.

Euskararen aldeko mosaiko herritarra abenduaren 2an Durangon



Berbaroko eta ANBOTOko kideak Korrikan.

M.Z. DURANGO

GUKA euskalgintzako eragileak batzen dituen taldeak euskararen aldeko mosaiko herritarra egingo du abenduaren 2an Durangon, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan. Landakon izango da, 18:00etan.

Euskararen Nazioarteko Eguna euskararen aldeko aldarria zabaltzeko eta euskaltzaleak mobilizatzeko eguna izatea gura du GUKAk, eta, horretarako, mosaiko herritarra egingo dute aurten.

Bestalde, antolakuntza lanak errazteko, GUKA taldeko kideek jakinarazi dute parte hartzea baieztatzea eskertuko dutela.

Izena emateko, eskaneatu QR kode hau.

Bizikletentzako aparkaleku estalia Juan Itziarren

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak bizikletentzako aparkaleku estalia ipiniko du Juan Itziar auzoan abenduan. Proba legez atonduko dute, erabiltzaileen artean zelako harrera duen neurtzeko. Herritarren erantzuna "positiboa" bada, udalak antzera bateko instalazio gehiago ipiniko ditu 2027an, herriko beste gune batzuetan. Bestalde, udal brigadak bizikleten aparkaleku batzuk lekuz aldatuko ditu, eremua berrantolatzeko. Udalak jakinarazi duenez, urriaren 28an bost bizikleta abandonatu erretiratu zituzten herriko kaleetatik, bandoz iragarri eta gero.

Durangoko bibliotekak seigarrenez irabazi du Maria Moliner saria

E.H. DURANGO

Bizenta Mogel Bibliotekak beste sari bat irabazi du irakurzaletasuna bultzatzeko egindako lanagaitik. Maria Moliner saria jaso du, hau da, Espainiako Kultura Ministerioaren eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren saria, seigarrenez. 2.777 euroko saria irabazi du, eta liburu eta argitalpen berriak erosteko erabiliko dute dirua. Durangoko Udalak Bibliotekaren konpromiso iraunkorra nabarmendu du, urte hauetan irakurzaletasuna bultzatzeagaitik. "Liburuak mailegatzetik harago doan lana da, Durangoko kultura-bizitza aberasten laguntzen duena", esan dute udal iturriek.

JAED elkartearen stand solidarioa zabalik dago Andra Marian, 80.000 txartelegaz

Denak saltzea dute erronka. 50 sari daude jokoan. Zozketa erregenetan egingo dute

Ekaitz Herrera DURANGO

JAED elkarteak asteon zabaldu du denda solidarioa. 80.000 txartel ipini dituzte salgai, eta denak saltzea dute erronka. Elkarteko boluntarioak urtarrilaren 5era arte egongo dira Andra Mariko elizpean lanean. "Aurtengo kanpaina ondo baino hobeto hasi dugu", esan zuen Esti Zurikarai elkarteko presidenteak astelehenean, denda zabaldu berritan. "11:00-11:30 aldera zabaldu ditugu ateak, eta 400 txartel baino gehiago saldu ditugu lehenengo ordu eta erdian", gaineratu zuen. Iñigo Murgoitio elkarteko diruzainak erronkari egin zion erreferentzia: "80.000 txartel saldu gura ditugu. Ziur gaude lortuko duguna". Izan ere, JAED txartel kopurua handitzen joan da urtetik urtera. "Oraindino akorduan daukat 41.000 txartel ateratzen genituen



JAEDeko Esti Zurikarai eta Iñigo Murgoitio.

garaia. Azken urteotan, 60.000, 65.000, 70.000... kopurua handitzen joan gara, eta 80.000ra ailegatu ginen iaz. Izurritik hona joera hori handitu egin dela iruditzen zait", azaldu du Murgoitiok.

Aurten, elkarteko kideek 50 sari batu dituzte zozketara. Dacia Sandero ibilgailua da saririk handiena, baina atzetik datozenak ez dira gutxiagorako: askotariko bidaiak (Kanariak, Eurodisney, Portugal), bizikleta elektriko bat, Apple etxearen telefono eta ordenagailuak, spa eta hotel egonaldiak, roomba xurgagailua, baxera, gabonetako produktuen otzara, Zugaza zinemarako bonua eta Kobika jatetxeko otordu bat daude sarien artean. Erregenetan egingo dute zozketa publikoa, elizpean bertan.

Badago beharrizana

JAEDek bere lana egiteko erabiliko du baturiko dirua, hau da, beharrizana duenari laguntzeko. Elkarteak hilero-hilero oinarrizko elikagaiak eta higiene produktuak eskaintzen dizkie beharrizana dutenei. Ildo horretan, Durangoko eta eskualdeko herritarrak txartelak erostera eta zozketan parte hartzera deitu dituzte. "Autoa bai, baina askotariko sariak ditugu hemen. Baita pernil handi bat ere!", esan du Zurikaraik, umorez. Murgoitiok azpimarratu du JAED hitzordu esanguratsua dela eskualdeko gabon giroan. Durangoko eta Iurretako herritarren zein elkarteen elkartasuna txalotu du: "Talde eta norbanako asko dugu bidelagun. Babes eta laguntza handia eskaintzen digute. Asko eskertzen dugu ekarpena".

EAJ kexu, Eguneko Arreta Zerbitzuko "informazio faltagaitik"

E.H. DURANGALDEA

Durangaldeko EAJk azalpenak eskatu dizkio Mankomunitateari Eguneko Arreta Zerbitzuaren harira. "Orain lau hilabete", zerbitzua eskualde osora zabaltzeari buruzko informazioa eskatu zioten EH Bilduri, baina, adierazi dutenez, "oraindino" ez dute zabalkunde horri buruzko "dokumentaziorik ez azalpenik jaso". Jeltzaleek zerbitzuko jarduerak, zerbitzua beste udalerri batzuetara zabaltzeko datak eta horretarako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak zehaztea eskatzen dute. Gainera, zerbitzua handitzeagaz "kezkatuta" agertu da EAJ, bere berbetan Abadiñoko eguneko zentroak, proba pilotuak, "oso erabiltzaile gutxigaz" hasi duelako ibilbidea. "Erabiltzaile bigaz hasi zen martxan, eta ondoren beste pertsona batzuk batu badira ere, erabiltzaile kopurua txikia da oraindino", esan dute. Horregaitik, egoera aztertzea "beharrezkoa" dela iritzi diote.

ZALDIBARKO
San Andres jaiak 2026

Azaroak 21
ZAPATUA
16:30-19:30 Adin guztietarako jarduerak rokodromoan.

Azaroak 22
DOMEKA
11:00 Zaldibarko XXVII. Neguko Nekazari Azoka.

Azaroak 27
BARIKUA
18:30-20:30 Argazki erakusketa kolektiboa liburutegi zaharrean.
19:00 Jaien hasiera iragartzeko txapligua jaurtiko du "Viajando con Apu" familiak.
19:45 Pintxo solidarioak eta DJ Josemari Olazarren, Helmugak antolatuta. Batutako dirua Danobat emakume zentroarentzat izango da.

Azaroak 28
ZAPATUA
11:00 "Jaizale" Txistulari taldearekin kalejira.
11:00-13:00 Zaldibarko Arku Taldearen ate irekien jardunaldia, arku galerian.
12:00-14:00 eta 18:30-20:30 Argazki erakusketa kolektiboa liburutegi zaharrean.
17:30 "Mariaren kutxa magikoa" magia ikuskizuna pilotalekuan.

Azaroak 29
DOMEKA
12:00-14:00 Argazki erakusketa kolektiboa udaletxeko liburutegi zaharrean.
16:30-19:30 JOKAI, Euskal mitologian oinarritutako jolasak eskolako kiroldegian.

Azaroak 30
ASTELEHENA
12:00-14:00 Argazki erakusketa kolektiboa udaletxeko liburutegi zaharrean.
13:00 Zaldibarko Koral Elkarteko abesbatzak elizan abestuko du jubilatuen omenez.
14:00 Jubilatuen bazkaria.
18:00 Olazar txapelketako pilota partidak Olazar pilotalekuan.

Zaldibar Elizateko Udala



Mendilagun taldekoak, 2025eko irteera batean, Arietzu aldean. DURANGALDEKO AEK

Mendilagunek deiadar-mendien eta batzar-etxeen erronka prestatu du

Bederatzi irteera antolatu dituzte; lehenengoa eskualdean egingo dute, azaroaren 22an, eta azkena ekainaren 27an

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Durangaldeko Berbalagunek mendi erronka bat prestatu du eskualdeko mendizaleentzat eta euskara praktikatu gura dutenentzat. Azaroaren 22tik ekainaren 27ra bitartean, bederatzi txango antolatu dituzte Bizkaiko deiadar-mendiak eta batzar-etxeak ezagutzeko. Mendizaletasuna, euskara, kultura eta historia batuko dituzte modu horretan.

Egutegia ere prest daukate, gainera. Irteera hauek programatu dituzte: Gerediaga (azaroak 22), Gernika (abenduak 19), Sollube (urtarrilak 24), Avellanedako batzar-etxea (otsailak 21), Oizera irteera Berrizko Amaraune mendi taldearen laguntzagaz (martxoak 21), Ganekogortara txangoa Elorrioko Erdella mendi taldearen laguntzagaz (apirilak 18), Kolitzara txangoa (maiatzak 23), Deiadar mendien egunera irteera Alpino Tabira taldeko kideekin (ekainark 6) eta azken txangoa eta bazkaria (ekainak 27). AEKko antolatzaileek iragarri dutenez, irteera bakoitzeko data ailegatu ahala deialdi indibidualak egingo dituzte ordutegien eta ibilaldien berri emateko. Sare sozialetan emango dute horien berri, eta *anboto.org* atarian ere kontsultatu ahal izango dira xehetasunak.

Lehenengo txangoa, Gerediagara

Mendilagunek azaroaren 22rako programatu du lehenengo irteera, eskualdean bertan. Txangolariek 13 kilometroko ibilaldia egingo dute Durangaldeko herri batzuk zeharkatuta. Durangoko Santa Anako arkupetik hasiko dute bidea, 09:00etan, oinez, eta Astola, Gerediaga, Garai eta Durango lotuko dituzte. Txangoaren iraupena lau-bost kilometrokoa izango dela kalkulatu dute. Izen emateak 639 400 786 telefonoan egin behar dira. Parte hartzaileek ura, hamaiketakoa eta arropa egokia eraman beharko dute.



2024ko sanandresetako feria. ZALDIBAR

Sanandresetako azokak 40 ekoizle batuko ditu domekan Zaldibarren

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Domeka honetan Baserritarren Neguko Azoka egingo dute Zaldibarren. 11:00etan hasita, Euskal Herria etorbidearen inguruak lehen sektoreko produktuekin eta artisauen sorkuntzekin beteko dituzte. Baserriko produktuei loturiko 31 postu egongo dira guztira: bost ortuari postu, ogia eta gozoak erosteko zazpi, eztien beste bost, lau gazta postu, postreak erosteko postu bi eta bestelako produktuekin osaturiko hamar mahai. Ekoizleak Euskal Herriko luze-zabaletik etorriko dira. Batzuk eskualdekoak izango dira (Zaldibarkoak, Berrizkoak, Mallabikoak eta Mañarikoak), Bizkaikoak beste batzuk (Bilbokoak, Larrabetzukoak, Orozkokoak, Gamiz-Fikakoak, Basaurikoak, Balmasedakoak), gipuzkoarrak hainbat (errezildarrak, irundarrak eta zumarragarrak) eta lapurtarrak beste bi (hendaiarrak eta uztariztarrak). Halaber, hamar artisauren lanak ezagutzeko eta erosteko aukera ere egongo da.

Neguko jaien atari

Domekakoa sanandresetako lehenengo hitzordua izango da Zaldibarren. Ospakizunek datorren asteburuan izango dute segida. Pintxo solidarioak, DJ Josemari, magia ikuskizuna eta jubilatuen bazkaria egongo dira, besteak beste.

Iurretako gazteek alokairurako diru laguntza eskatzeko epea zabalik dute

A.B. IURRETA

Dagoeneko zabaldu dute epea Iurretako Udalak etxebizitzaren alokairua ordaintzeko ematen dituen diru laguntzak eskatzeko. 18tik 35 urtera bitarteko iurretarrei zuzendutako deialdia da eta abenduaren 15era bitartean egin daiteke eskaria. Laguntzaren zenbatekoa hileko alokairuaren %50era artekoa izango da. Udal arduradunek jakinarazi dutenez, herriko gazteek 250 euroko diru laguntza eskuratzeko aukera izango dute gehienez.

Eskaria egiten duten gazteek azken urte bietan Iurretan erroldatuta egon direla egiaztatu beharko dute. Era berean, alokairu kontratu bat aurkeztu behar dute, hileko 750 eurotik gorakoa ez dena. Eskariak Herritarren Arreta Zerbitzurako bulegoan (HAZ) bideratu daitezke, udal arduradunek azaldu dutenez, edo, bestela, modu telematikoan. Iurretako Udalak 9.000 euroko diru poltsa lotu du izan daitezkeen eskariei aurre egin ahal izateko.

Autonomia bultzatzeko

Udal ordezkariek ohar batean jakinarazi dutenez, Iurretako gazteei euren herrian bizitzeko proiektua eraikitzen laguntzea da deialdiaren helburua. "Diru laguntza hauen bitartez, gazteentzat alokairuaren merkatura sartzeak dakarren zama ekonomikoa arindu gura dugu, eta, hartara, euren autonomia eta independentzia bultzatu, eguneroko ingurunea alde batera utzi behar izan barik", zehaztu dute.



Iurretako irudi bat.

Aiartzako eta Uriengo bideak konponduko dituzte Garain

E.H. GARAI

Garaiko Udalak Aiartzako eta Uriengo herri bideetako zati bana konponduko du. Martxan ipini dute horretarako lizitazioa, herri bideetan inoiz egin duten handiena. 110.700 euroko aurrekontua prestatu dute lanen lehenengo faserako, eta beste 120.500 euro bigarren faserako; 231.200, guztira. Kopuru horretako 60.000 euro Aldundiak ipiniko ditu. Udal iturriek gogorarazi dutenez, 2023tik hona hainbat konponketa egin dute Beratu, Urresti eta Emaldi aldeko bideetan. Azken jarduketa Larriñan egin dute, errepidean lau zabalera gehigarri atonduta. Aurrerantzean, arekak egin gura dituzte Aiartzan.

Otxandion kantuan ospatuko dute Euskararen Eguna

A.B. OTXANDIO

Datorren abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko elkartuko dira Otxandion. 15:50ean Otxandio Kantuz ekitaldiari ekingo diote Mainondo herri eskolan. Ondoren, herritarrak plazan elkartuko dira. Soinubil elkarteak lagunduta, euskaraz kantuan egiteko gonbidapena egin dute. 18:00etan izango da. Jarraian, Emojonk! jolasaren ikasturteko lehenengo txanda egingo dute, eta, amaitzean, luntxa eskainiko diete bertaratzen direnei. Airatuz euskara elkarteak, Soinubil elkarteak, Mainondo herri eskolak eta Otxandioko Udalak antolatu dute egitaraua.

ZOZKETA BEREZIA. ZOZKETA BEREZIA. ZOZKETA BEREZIA. ZOZKETA BEREZIA. ZOZKETA BEREZIA. ZOZKETA BEREZIA

ANBOTOKIDE

25 URTE 25 SARI 25 EGUNETAN

Oso urteurren berezia da guretzat, eta bidelagun izan zareten guztioi bihotzez eskerrak eman gura dizkizuegu, zuen babesa ezinbestekoa da eta.

Oraindino ez zara **ANBOTOKIDE**?
Batu komunitatera eta ez galdu aukera!

Latxaberri txahal okela

5 kg-ko LOTEA.
650 g-ko 8 pakete

ARADIÑO

Mancisidor 1866



Mancisidor bitxi dendaren eskutik 300€-ko bonua

DURANGO

2200-ko Magefesa parrilla elektrikoa



Izarbe Elektrotresnak-en eskutik 2200w-ko parrilla elektrikoa

ZUBIETA

Eusko Label Winter Series



Finala
2 sarrera
OTSAILAK 13

GERNIKA

Txirrindularitzarako materiala



Ciclos Iturriaga. Basati Bike eta Maida Bikes-en material sorta

ARADIÑO

IrriSarri Land abentura parkea



Abentura pakerako
2 sarrera Pro

Ana Camarero



Ana Camareroren eskutik aurpegiko tratamentu pertsonalizatua

DURANGO

Nekatur opari txartela



Nekaturren eskutik egonaldi bateako 180€-tako opari txartela

La Perla



Talasoterapia zirkuitorako bisarrera

Neumaticos Etxebarria



AZAROAK 23

100€-ko bonua pneumatikoetan

DURANGO


Musika sorta



AZAROAK 24

F.Muguruzaren binilo bikoitza eta Ukelele instrumentu bat

Virginia Ansorena



AZAROAK 25

Virginia Ansorenaren eskutik, aurpegiko tratamendu premium-a

DURANGO

Garena Jatetxea



AZAROAK 26

Lagun birentzako taberna menua

DIMA

Errigorako otzara gorria



AZAROAK 27

Nafarroako Erriberak emandako produktuekin gozatzeko aukera

%50 *deskontua 2026ko kidetzan*

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
946 816 558
anboto.org/egin-kide



Ainhoa Salterain eta Aritz Labrador.

'Oihartzunak' kontzertu sorta aurkeztu du Zornotzako Bandak

Bost emanaldik osatzen dute egitaraua; zapatuan ekingo diote lehenengo kontzertuari, Aritz Labrador zuzendari dutela

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzako Musika Bandak *Oihartzunak* kontzertu denboraldi berria aurkeztu du aste honetan. Aritz Labrador zornotzarrak zuzentzen duen proiektuak bost musika proposamen eskainiko ditu. Herriko musika taldeak, Zubiaur Musika Eskolako ikasleak eta artista gonbidatuak arituko dira bertan. Hain zuzen ere, asteburu honetan izango da lehenengo emanaldia, *Taupaden oihartzunak*, eta bertan Galiziako Odaiko Percussion Group taldeak parte hartuko du. Galiziarren perkusioak gau berezi horretako protagonistak izango dira; perkusioaren bitartez, indarra eta soinu-unibertso desberdin bat, erritmo etnikoak eta lengoaia garaikidea uztartuko dituzte. 20:00etan izango da kontzertua, Zornotza Aretoan. Labradorrek bandak herriagaz eta zornotzarrekin duen lotura azpimarratu zuen. "Iraganeko kontuek orain duten eraginaz hausnartzea gura dugu zikloagaz, baita etorkizunean izan dezaketen eraginaz ere". Ainhoa Salterain alkateak ere kontzertu denboraldiak Zornotzako bizitza kulturalean duen pisua nabarmendu zuen. "Gure herriko kultur bizitzaren funtsezko eragileetariko bat da. Denboraldi berri honegaz, musikaz gozatzeko aukera eskaintzeaz gainera, gure sustraiak ezagutzera, bizipenak partekatzera eta herri legez ditugun loturak sendotzera gonbidatzen gaitu".

Bigarren hitzordua *Sustraien aztarnak* kontzertua izango da, Seiren taldeko Jokin Lacalle eta Onintze Garcia bidelagun dituztela. 2027ko otsailaren 20an, *Haizezko durundia* emanaldia egingo dute, haize sekzioaren protagonismo handiagaz. Maiatzaren 8an *Iraganaren hotsak* kontzertua egongo da, eta bertan Ruper Lekue konpositore eta Zubiaur eskolako zuzendari ohia omenduko dute. Ekainaren 19an amaituko dute denboraldia, Haizetara kaleko musikaren jaialdian.



Laia Baserri Eskola . LAUAXETA

Laia Baserri Eskolak ateak zabaldu dizkie Bizkaiko familia guztiei

A. M. ZORNOTZA

Lauaxeta Ikastolak Bizkaiko familia guztiei zuzendutako aisialdi hezitzaileko proposamen berri bat ipini du martxan, Laia Baserri Eskola. Ekimenaren helburua familia aisialdirako beste aukera bat eskaintzea da. "Haurrei eta helduei naturaz gozatzeko, animalien mundua gertutik ezagutzeko eta ortu ekologikoagaz loturiko jardueretan parte hartzeko aukera eskaintzeko", azaldu dute Lauaxeta ikastolakoek. Saioetan, besteak beste, oiloak, poneyak, ahuntzak, ahateak eta txerriak ezagutuko dituzte. Ortu ekologiko batek zelan funtzionatzen duen ere ikusiko dute, "esperientzia sentsorial eta gidatuen" bitartez.

Antolatzaileek familian gozatzeko ekimen legez planteatzen dute ekimena. "Batez ere, urte bitik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko haurrei zuzendurikoa da. Hala ere, urte bitik beherako haurrek ere parte hartu ahal izango dute, heldu batek lagunduta", argitu dute. Lauaxetako kide ez direnek ere parte hartuko dute ekimenean. Lauaxeta ikastolak hilero antolatuko ditu horrelako esperientziak, zapatu batez. "Asteburuaz beste modu batera gozatzera gonbidatzen ditugu Bizkaiko familiak: denbora, natura eta ikaskuntza elkarregaz partekatuta", gaineratu dute.

'Animaliategia' BBK Artearen nondik norakoak azalduko dituzte zapatuan



Erakusketa udaletxearen eta elizaren arteko kaleko espazioan ikusi daiteke.

A. M. BERRIZ

BBK Artearen Ibilbidearen zazpigarren edizioa Berrizera heldu da. *Animaliategia* izenagaz, Bilbao Museoaren bildumako 38 artelanen erreprodukzioak erakusten dabiltza herririk herri. Zenbait artistaren aleak daude ikusgai, garai eta teknika desberdinetakoak, izan margoak, grabatuak zein kartelak, eta denetan animaliak dira protagonistak. Zapatuan, hilak 21, bisita gidatua egingo dute erakusketaren nondik norakoak azaltzeko, 11:00etatik 13:00etara. *Animaliategian* Jose Luis Merino Gorospe Museoko Antzinako Artearen kontserbatzaileak egin ditu komisario lanak, eta berak aukeratu ditu erakusketako obrak. Animalien irudikapenen "balio alegorikoa" nabarmendu dute aukeraketan, deskripzio hutsetik harago "narrazio-dimentsioa" indartuta.

Egun osoko egitaraua izango dute Axpen, San Martintxo jaia ospatzeko

A. M. ATXONDO

Azaroaren 21ean, zapatuan, San Martintxo jaia egingo dute Axpen. Giro ederrean egingo dute eta ez da musikarik eta janaririk faltako. 11:30ean ekingo diote ospakizunari, Axpeko plazan bertan, mokadutxo baten bueltan; ondoren, ingurutik ibilaldi bat egingo dute, musikariz lagunduta. Bazkalaurretik, igel eta porra txapelketa egingo dituzte. Eguneko ekitaldirik nagusienetariko bat bazkaria izango da. 14:30ean hasiko da eta hor ere musikak protagonismo berezia hartuko du.

Bazkalostean, San Martintxo otzara zotz egingo dute jaira doazen herritarren artean.

Gaztainerre, gaur

Gaur, azaroak 20, Gaztainerre ospatuko dute giro eta konpainia ederrean. 18:30ean ipini dute ordua, Apatako plazan. Atxondoko Udalak ospakizunean parte hartzeko gonbita egin die herritarrei. Gero, 20:00etan, Go!azen telesailaren 13. denboraldia estreinatuko dute erabilera anitzeko gelan.

11:30ean ekingo diote ospakizunari, Axpeko plazan bertan, mokadutxo baten bueltan



OSASUN *gida.*

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

ODONTOLOGIA
PSE:177/26

DURANGO
Clínica dental · Hortz klinika
ODONTOLOGIA INTEGRATIBOA
Ahotik lortu zure osasuna
Artekale, 37 DURANGO
Tel.: 94 604 14 76
gerencia@clinicadentaldurango.com
www.clinicadentaldurango.com

ODONTOLOGIA
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Klinika dentala Durangon
DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.
Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta
944 14 80 36 | 626 18 30 90
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

ODONTOLOGIA
PSE: 145/13

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e.etxebarria
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA · ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA · ODONTOPEDIATRIA · PADI · HORTZETAKO ESTETIKA · HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)
{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

OPTOMETRIA
PSE: 162/13

NAIA ZABALA AUZMENDI
keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
· JOKABIDE OPTOMETRIA · HAURREN IKUSMENA · IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA · JATORRIZKO ERREFLEXUAK · FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA · SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA · KIRÓL IKUSMENA · GARUNEKO LESIOAK · UKIPEN LENTEAK · ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA
Arkaz 3 · 48240 Berriz · Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

PODOLOGIA
PSE: 245-26

Ainara Urreta Jainaga
OINEN ZAINTZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK
Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

NATUROPATIA ETA HOMEOPATIA

Aurora Julià
HOMEOPATIA · NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA
Umeak - Helduak - Nagusiak
Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus

FISIOTERAPIA
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia
Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

FISIOTERAPIA
PSE: 119/13

ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia
Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.
Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

Elorrioko Txintxirri Ikastolan 41 plaka fotovoltaiko daude argindarra sortzen

Eguzki plakak eta ortua dira ikastolako Teilatu Bizia egitasmoko ardatz biak

J.D. ELORRIO

Elorrioko Txintxirri Ikastolako Teilatu Bizi egitasmoko eguzki panelak martxan dira dagoeneko. Instalazio fotovoltaikoak 41 modulu ditu, 24 kilowatt-eko potentziagaz, eta 140 metro koadroko azalera hartzen du Haur Hezkuntzako eraikin berriaren teilatuan, ikastolatik informatu dutenez. Egun eguzkitsuetan, kontsumitzen dutena baino elektrizitate gehiago sortzen dutenez, soberakinen zati bat Elorrioko Anbotopeko elkarteari ematen diote, haiek denda duten elektrizitate kontsumoari aurre egiteko. Anbotopeko Elorrioko eta inguruko nekazarien elkarte bat da, bertako produktu ekologikoak herritarrei zuzenean saltzeko denda bat daukana. Teilatu Bizia proiektuaren beste ardatza ortua da. Iaztik dago martxan. Ikastolako familiek auzolanean egin zuten eta auzolanean lantzen dute, sasoiko produktu ekologikoak ekoizteko. Egitasmoa 2023an sortu zuten, Haur Hezkuntzako eraikin berriaren teilatu lauari erabilera emateko asmoz. Ingurumenagazko konpromisoa, elikadura, auzolana eta herrigintza ditu oinarri. 2024an, FAGOR Herrigintza ekimenaren deialdian 40.000 euroko diru laguntza jaso zuen.



Teilatu Bizia egitasmoko plaka fotovoltaikoak. TXINTXIRRI



Auzolanaren bitartez egin eta lantzen dabiltzan ortua. TXINTXIRRI

Elorrio bizitegi merkatu tentsionatuko eremu izendatu dute ofizialki

J.D. ELORRIO

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak jakinaren gainean ipini du udalerria: behin betiko agindua eman du Elorrio bizitegi merkatuko eremu tentsionatu izendatzeko. Halaxe jakinarazi du udalak berak ohar batean. Izendapen horrek hiru urteko hasierako indarraldia izango du, eta urterik urte luzatzeko aukera izango du. Izendapena indarrean sartzeagaz batera, etxebizitzen alokairu-errentak arautzeko neurriak aplikatuko dira. Besteak beste, aurretik alokairuan zeuden etxebizitzen kontratu berrietan aurreko errentari eutsi beharko zaio, dagokion eguneratzea aplikatuta. Azken bost urteetan alokairuan egon ez diren etxebizitzetan, ostera, erreferentziazko prezioen indizeak ezarritako gehieneko muga ezingo da gainditu. Gainera, etxebizitza-jabe handiei betebehar zorrotzagoak ezarriko zaizkie, eta ezingo da etxebizitza edo logela turistiko berririk ezarri.

Plazako obren eraginez, aurten ez dute Nikolas Azoka egingo Izurtzan



Frontoian jartzen izan dira postuak.

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak bertan behera utzi du Nikolas azokaren aurtengo aldia, plazako eraberritze lanen eraginez; azoka abenduaren 6an egiten dute urtero. Azaldu dutenez, ekoizleen furgonetak ezingo lirateke behar den moduan sartu produktuak eta materiala kargatu eta deskargatzeko. Gainera, azoka osoa frontoian egin beharko lukete. Normalean, postuak frontoian ipintzen dituzte, baina pintxoen standa eta dantzak plazan izaten dira. Gainera, plaza dagoen moduan egonda, ez dakite zenbat bisitari etorriko litzatekeen.

Plazako obrek azaroaren 29ko hauteskundeetan ere izango dute eragina. Udaletxean barik erabilera anitzeko gunean ipiniko dute hauteskunde-mahaia. Beste arrazoi bat ere badago lekua aldatzeko: udaletxeko irisgarritasun-plataforma hondatuta dago.

Mañariko auzolanaren bigarren saioa egingo dute zapatu honetan

J.D. MAÑARIA

Joan zen asteburuko lehenengo saioan egin zuten moduan, mañariarrak auzolanean batuko dira zapatu honetan ere. Besteak beste, auzobideak eta bide bazterrak garbitzen eta txukuntzen jarraituko dute herritarren artean. 08:00etan ipini dute ordua, plazan. Gero, parte hartzaileek bazkaria egingo dute.



Joan zen zapatuko auzolana.



Abadiñoko Udalak Astolako saneamendu sarea hobetuko du

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak lizitaziora atera ditu Astolako saneamendu sarea hobetzeko obrak. Lan hauek 106.457 euroko aurrekontua dute, eta hiru hilabeteko egikaritze epea izango dute. Abadiñoko Udalak jakinarazi du Astola kaleko 14, 16 eta 18 atarietako 24 etxebizitzak saneamendu sistema nagusira konektatzea dela jarduketaren helburua. Azpiegitura berri horri eskerrak, etxebizitza hauek Atxondo Traña-Matiena kolektore nagusira konektatuko dira grabitate bidezko hoditeria batez. "Lan hauek urteetako eskariari bide ematen diote eta udalerriko oinarrizko zerbitzuak hobetzeko estrategiaren barruan kokatzen dira", esan dute udaleko ordezkariek.



Astolako etxe hauetan hobetuko dute saneamendu sarea.

Bisita gidatua, bihar, Abadiñoko elizako organoa ezagutzeko



Abadiñoko organoa. ABADIÑOKO UDALA

M.Z. ABADIÑO

Bihar, azaroak 21, bisita gidatu berezia egingo dute Zelaietako San Trokaz elizan. Bertaratzen direnek Abadiñoko organo historikoa gertutik ezagutzeko aukera izango dute. San Trokaz elizakoa 1913ko organoa da, Lope Alberdi maisu eta organogileak egindakoa. Gainera, antolatzaileek jakinarazi dute bisitan zehar zuzeneko musikaz gozatzeko aukera ere egongo dela.

Bisita gidatua 10:30ean hasiko da eta sarrera doakoa izango da.

Enerpacek Mallabiko lantegia itxi eta 43 lantegile kaleratu gura ditu

M.Z. MALLABIA

Ohar baten bitartez, LAB sindikatuak iragarri du Enerpac multinazionalak Mallabiko enpresa ixteko asmoa duela, eta bertako 43 langile kaleratu gura dituela. "Enplegu Erregulazio Espedientea kentzeko eta negoziazio mahai bat zabaltzeko eskatu diogu enpresari, eta bertako 43 langileen kaleratzeari alternatibak bilatzeko", esan dute sindikatukoek. LABek gaineratu du, lehenengo bileran enpresak uko egin ziola enplegu erregulazio espedientea kentzeari. Horrez gainera, sindikatuko kideek alternatibak bilatzen parte hartzeko eskatu diete Eusko Jaurlaritzari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Mallabiko Udalari.



Enerpac enpresa, Mallabian.

Mendi irteera kulturala Irulegira


M.Z. ABADIÑO

Isiotu Kultur Elkarteak eta Alluitz Mendi Taldeak, udalaren laguntzagaz, Irulegira mendi irteera kulturala antolatu dute azaroaren 28rako. Goizean mendi ibilaldia egingo dute aztarnategia bisitatzeko, eta arratsaldean Nafarroako Museoa bisitatuko dute, eskua ikusteko. Izena emateko azken eguna hilaren 23a da.



ARGAZKIJABEAXXXXXXX





Espainiako hauteskundeen oihartzuna eskualdera ailegatu da

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Azaroaren 29an hauteskunde orokorrak egingo dituzte Espainian, eta giroa pil-pilean dago Madrilgo agintea zein espektro politikok beteko duen ikusteko, ardura politikoa joera ezkertiarreko taldeek ala jite eskuindarrekoek eurenganatuko duten ikusteko. Bien bitartean, lehia politiko horren oihartzunak Durangaldera ere ailegatu dira, eskualdeko izen batzuk ageri dira-eta hautagaien zerrendan. Adibidez, Martin Arrasate durangarra senaturako hautagai da EH Bilduren zerrendan. Bigarren lekuan ageri da. Beste izen ezagun bat Alba Gutierrezena da. Zornotzarra senaturako hautagaien artean dago, eta bigarren lekuan ageri da hura ere, hasu honetan Fronte Zabalaren hautagaitzan. Gainerakoan, hauteskunde zerrendetako gorengo postuetan ez da eskualdeko izenik ageri EAJren, PSE-EEren edo PPren zerrendetan.

Hauteskunde kanpainaren barruan EH Bilduk ekitaldia egin zuen martitzenean Durangon: "Azaroaren 29koa geltoki bat gehiago izango da, ez helmuga. Posible da ultraeskumari irabaztea", adierazi zuen Arrasatek.

Bestalde, PSE-EEko hautagaiek arrosak banatu zituzten Durangon, herritarrei "ilusioa eta indarra" helarazteko.



Ima Garrastatxu eta Martin Arrasate durangarrak, ekitaldian. EH BILDU

DURANGALDEA ASTEON

ANBOTOren egutegia dagoeneko salgai dago Durangaldeko hainbat lekutan

DURANGALDEA Maialen Zuazubiskar argazkilari abadiñarrak atera ditu egutegiko argazkiak. Salmenta puntuak 19. orrialdean ikusgai.



'Zientzia eta Artea pertsona guztientzat' erakusketa ibiltaria Durangon

DURANGO Durangoko Ezkurdi plazan 'Zientzia eta Artea pertsona guztientzat' erakusketa ibiltaria dago ikusgai hilaren 30era arte. Erakusketak zientziaren ezagutzara artearen ikuspegitik hurbiltzeko aukera eskaintzen die herritarrei.

Ester Expositok eta Kylian Mbappek ikusmina piztu dute aste honetan Durangon

DURANGO Astelehenean, Ester Expósito aktorea 'La Regenta' filma grabatzen aritu zen Santa Ana inguruan, eta haren bikotekidea —Real Madrileko Kylian Mbappé futbolaria— bisitan etorri zitzaion. Jokalariak ezustean harrapatu zituen Alde Zaharreko bizilagunak. Eguerdian, bikoteak Txantonesa tabernan bazkaldu zuen eta momentu hartan ikusmina igartzen hasi zen Goienkalea kalean; zale batzuk zain zeuden taberna kanpoan. Bikoteak Andra Marian zegoen furgoneta batean alde egin zuen. Arratsaldean, beste horrenbeste gertatu zen. Santa Ana plazan geroago eta jende gehiago batzen hasi zen, grabazioa amaitutakoan bikotea noiz irtengo zain. 18:00 aldera irten ziren, furgonetan, udaltzainek eskoltatuta.



GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa / / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

ARGITARATZAILEA
Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Zuzendaria
Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua
Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa
Itziar Belar Zubizarreta.
Publizitatea
Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa
Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina
Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale

PEFC ziurtagiria
Produkto hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-38-00225

LAGUNTZAILEAK

ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA
IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR ZORNOTZA

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

AZAROAK 25 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA



A25 EMAKUMEEN ERRESISTENTZIA INDARKERIA HETEROPATRIARKALAREN FORMA EZBERDINEN AURREAN

Elorrioko udala

Azaroak 21

LARUNBATA

10:00-14:00
Topaketa: **"Hezkidetza Hezkuntza Ez Formalean"**
Euskaraz
Iturri Kultur Etxean
Izena emateko: **berdintasuna@elorrio.eus**
edo whatsappez: **747 48 60 64**

Azaroak 25

ASTEAZKENA

19:00
Mobilizazioa plazan. Asanblada Feministak deituta.

19:30
Dokumentala: **"Viven, temen, sueñan"**. Mujeres por Gaza.
Gazteleraz
Arriola Antzokia

Azaroak 22 eta 23

20:00
Filma: **"Santamantecas"**.
Zuzendaria: David Pérez Sañudo
Gazteleraz
Arriola Antzokia

Azaroaren 20tik 25era arte

11:30-13:30
Informazio-guneak
Elorrion dauden indarkeria matxistaren kasuetarako errekurtsoak, zerbitzuak, laguntzak eta abarrak.

- **Plaza** (azaroak 20)
- **Kiroldegia** (azaroak 23)
- **Osasun Zentroa** (azaroak 24)
- **Iturri Kultur Etxea** (azaroak 25)





"Ez dira irudi faltsu hutsak; emakumeen bizitzan benetako ondorioak dituzte"

LORENA FERNANDEZ ALVAREZ DEUSTUKO UNIBERTSITATEA


Lorena Fernandezek Andereak elkarteak Zugaza zineman antolatutako zine forumean parte hartu zuen.

J.D. DURANGO

Adimen artifizialak aukera berriak ekarri ditu, baina arrisku eta erronka handiak ere bai. Horien artean, emakumeen aurkako indarkeria digitalaren adierazpide berri bat dago: baimenik barik haien irudi pornografiko faltsuak sortzea eta zabaltzea. Geroago eta errazagoa da emakume baten aurpegia eduki sexualetan txertatzea, haren irudiari eta intimitateari erasotzeko. Andereak elkarteak eta Andraguneak joan zen astean antolatutako Zine Forumean gai hori landu zuten. Lehenengo, *Another Body* dokumentala proiektatu zuten, eta, ondoren, Lorena Fernandez Deustuko Unibertsitateko Adimen Artifizialaren Batzordeko arduradunak (Basauri, 1982) berbaldia eman zuen.

Inteligentzia artifizialak zer punturaino erraztu du horrelako irudien sorkuntza?

Inteligentzia artifiziala existitu aurreko zerbaiti buruz gabiltza, baina orduan askoz ere konplexuagoa zen eta jakintza bat behar zen. Inteligentzia artifizialak hau guzti hau erraztu egin du. Aplikazio asko dago eta foroetan modu errazean azaltzen dute non eta zelan deskargatu, eta zelan erabili. Edo erraztu egiten dute bideoen lan hori ordainpean egingo duen norbait bilatzeko. Beraz, dimentsio handia hartu duen zerbaiti buruz gabiltza, esponentzialki hazi egin dena, gainera.

Hazkundea baieztatzen duen zer datu dago?

2016ko azterketek erakusten zuten Interneten 15.000 *deepfake* bideo zeudela. *Deepfake*-a adimen artifizialaren bitartez sortutako edo manipulatutako irudi edo bideo faltsua da, benetakoa dela sinestarazteko erabiltzen dena. Aipatutako azterketa horren arabera, kopuru osoaren %96 *deepfake* sexualak ziren. Eta *deepfake* sexual horietatik %99tan emakumeak ziren protagonistak eta biktimak. Datu ikaragarriak dira. Datu horiek 2016koak badira, zer ote da gaur egun!

> **"Badirudi mezua hau dela: emakumeek ezin dute espazio digitalik okupatu"**

Eraso mota horiek zer ondorio izan ditzakete biktimen bizitzan?

Benetako irudiak filtratuko balira izango lukeen eragin bera du. Legalki diotena da: "Ez da zure gorputza". Baina emozionalki bada zure gorputza. Ez dira irudi faltsu hutsak; emakumeen bizitzan benetako ondorioak dituzte. Irudiak ikusten dituenak benetakoak balira legez kontsumitzen ditu. Eta kontsumitzen dituztenek irudiak faltsuak direla jakin arren, zu zara hor agertzen dena, errealak ez diren egoeretan, eta kaltetzen dena zure irudia da. *Another body* dokumentalak ondo erakusten ditu egoera horien ondorioak. Hasieran protagonistek pentsatzen dute profil baxuan mantentzea, ez dakitelako nork ikusi dituen irudi horiek, eta azkenean hori guzti hori zure aurka joan daitekeelako. Badirudi mezua hori dela: emakumeek ezin dute espazio digitalik okupatu. Gainera, oraindino ere entzuten da "zerbait egingo zuen horrelako gauzak gertatzeko". Azkenean, erruaren zama biktimaren gainean jausten da.

Zein da irudi horiek sortu eta hedatzen dituztenen profila?

Dokumentalean erakusten denez, gertuko jendea izaten da. Dokumentalean, unibertsitate berean dabilen norbait da. Eta ez du zentzu sexual batean egiten, hau da, bere helburua ez da biktima biluzik ikustea. Mendekua da arrazoia. Beste adibide bat ipiniko dizut. Orain denbora bat, Hego Koreako aktibista feminista batek mapa batean bildu zituen *deepfake* kasuak izan zituzten ikastetxe eta unibertsitateak. Mapa puntu gorriz beterik zegoen. Kasurik gehienetan, ikaskideak ziren beste ikaskide batzuen irudiak biluzten zituztenak. Hau da, gertuko pertsonak ziren, ezagunak, eta gero irudi horiek Telegram kontuetan partekatzen zituzten. Kontu horietako batzuek 'zigorra' zuten izena.

Erasoa gertatu eta gero, zer dio legeak?

Legearen ikuspegitik jokabide hori delitu legez tipifikatuta dago, pertsona baten irudiaren aurkako erasoa delako. Europar Batasuneko Adimen Artifizialaren Erregelamenduak *deepfake*-ei buruzko atal espezifikoa jasotzen du. Salaketa ipini eta gero, zailtasun nagusia erasotzailea identifikatzea eta frogak lortzea da. Izan ere, irudi horiek sortu eta zabaltzen dituztenek arrastoa ezkutatzeko tresnak erabiltzen dituzte, hala nola VPNak edo aldi baterako helbide elektronikoak. Helbide haien bitartez, plataforma pornografikoetan erregistratzen dira, kontuak sortzen dituzte eta bideoak ipintzen eta partekatzen hasten dira. Horrez gainera, irudiak behin Interneten zabalduta, oso gatx da haien hedadura kontrolatzea eta leku guztietatik ezabatzea.

Zer erantzukizun dute adimen artifizialeko tresnak garatzen dituzten enpresek eta sare sozialetako plataformek?

Erantzukizun osoa dute. Enpresek mekanismoak izan beharko lituzkete plataformetan zabaltzen diren edukietan agertzen diren pertsonek horretarako baimena eman dutela egiaztatzeko. Sare sozialetako adibide bat ipiniko dizut. Urte hasieran ezagutu zen X sare sozialeko Grok adimen artifizialari emakumeak biluzteko edo bikinian nahiz egoera iradokitzaileetan irudikatzeko eskatu ahal zitzaiola. Horrek asteetan funtzionatu zuen, plataformak eta Elon Musk jabeak egoeraren berri izan arren. 'Grokek emakumeak biluzten ditu' zioten titularrek. Baina Grokek ez ditu emakumeak biluzten bere kabuz. Atzean daudenak pertsonak dira: teknologia hori garatu dutenak, horregaz dirua irabazten dutenak, eta, azkenik, adimen artifiziala emakumeak biluzteko erabiltzen dutenak.

> **"Gertuko jendea izaten da, eta ez dute zentzu sexualean egiten. Mendekua da arrazoia"**

Amaitzeko, ideia bi azpimarratu gura nituzke. Batetik, erregulazioaren garrantzia. Adimen artifiziala gure bizitzako esparru guztietan sartzen dabil eta ezin dugu erregulazioa oztopo legez aurkeztu, beharrezko tresna legez baino. Bestetik, hezkidetzaren garrantzia. Gure seme-alabei, bereziki mutilei, horrelako erasoak zergaitik diren okerrak ulertarazi behar diegu. Lanketa hori ikastetxeetan ez ezik etxean ere egin behar da.

Emakumeen lasterketak 9. aldia beteko du domekan, DKTk antolatuta

J.D. DURANGO

Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Durango Kirol Taldeak Emakumeen Lasterketaren 9. aldia antolatu du domekarako. Lasterketa bi egongo dira eta biak Durangoko atletismo pistan hasi eta amaituko dira. Proba laburra 10:30ean hasiko da (1,6 km). Lasterketa ez lehiakorra da eta edonorentzat dago zabalik. Izen ematea egunean bertan egin daiteke, 2 euroan. Lasterketa nagusia lehiakorra da eta 11:00etan hasiko da (5 km). Izen ematea 'kronoak.eus'-en egin daiteke, gaur gauerdira arte (12 euro). Egunean bertan ere egin daiteke, 15 euroan. Ekimenagaz ateratako diruaren zati bat Andereak elkarteari emango diote.



Iazko sari banaketa.







"Guatemalan, haurdunaldietako asko 20 urtetik beherakoen artean izaten da"

MARIA ELIZABETH PORRAS
MEDICUS MUNDIKO KIDEA

Maria Elizabeth Porras mediku guatemalarra eta Medicus Mundiko kidea Durangaldean izan da

Aritz Maldonado DURANGO

Maria Elizabeth Porrasek hogei urtetik gora daramatza Bizkaiko Medicus Mundigaz kanpainak eta proiektuak koordinatzen; indarkeria matxisten aurka eta emakumeen osasunaren eta eskubideen aldeko borrokan murgilduta dago. Durangoko Udalak harrera egin zion martitzenean, ANBOTOgaz batu eta gero; eta iluntzean berbaldia eman zuen Iurretan, Anderebidek eta Auskarik elkarregaz antolatutako topaketan. Indarkeria matxistari aurre egiteko estrategiez berba egin zuen, eta hitzaldira joandakoei Guatemalako esperientziak azaldu zizkien. "Ea hotela gustuko dudan galdetzen didatenean, lo egiteko baino erabiltzen ez dudala erantzuten diet", esan zuen barre artean. Topaketagaz, Anderebidek eta Auskarik Iurretan egiten duten lana azpimarratu gura dute antolatzaileek. Porras mediku zirujaua eta hezkuntzan doktorea da eta esperientzia handia du genero indarkeria osasun arazo legez lantzen.

Medicus Mundik ia hamarkada bi daramatza Guatemalan proiektuak garatzen. Zerk egin du hobera urteotan?

Zehazki esateko, Medicus Mundik hamazortzi urte daramatza Guatemalan emakumeekin lan egiten. Emakumeen eskubideen alde lan egiten duten elkarte eta erakundeekin lan egiten dugu; zelanbait esateko, terrenoa prestatzen dugu. Aipatu beharra dago Guatemalan emakumeak oso antolatuta daudela, herrialde osoan zehar oso elkarte indartsuak daude.

Elkarte horiek badute hartu-emanik erakundeekin?

Ez, GKEak dira nagusiki, edota herritarrenak. Medicus Mundik zuzenean lan egiten du tokiko elkarteekin. Elkarlan horiek ez dira betiko, baina herritarrak ahaldunduz gero eurek ematen dizkiete bizia eta jarraipena proiektuei Medicus Mundi bertan ez dagoenean. Emakumeen aurkako biolentziaren inguruko pertzepzioa aldatzeko hasi ginen lanean. Ordura arte, gure herrialdean inork ere ez zuen osasun publikoaren arazo legez hartzen emakumeen aurkako biolentzia. Eta orduan esan genuen: "Guk bakarrik ez, osasun sistema publikoak ere osasun arazo publiko legez hartu behar du, eta baita herritarrek ere; horrela ulertu behar dute, gero osasun publikoagaz zerikusia duten eskubideak exijitu ahal izateko". Caimus delakoaren (euskaraz, Indarkeria Jasan Duten Emakumeentzako Arreta Integraleko Zentroak) sorkuntzan parte hartu dugu, besteak beste; bertan, emakumeek arreta osoa jasotzen dute: arreta medikoa, psikologikoa, legala eta baita ekonomikoa ere. Urteotan zenbait protokolo ipini da martxan alor askotan, eta Medicus Mundik horietariko askotan parte hartu du, gehiago edo gutxiago. Orain, Instituto Nacional de Estadisticaren bitartez, ahalegin bat egiten gabiltza datu guztiak gurutzatu eta erregistro bakar bat sortzeko. Badakigu gatxa dela, urteetarako prozesua dugula aurretik, eta ez dela erraza erakundeak ados ipintzea, baina horretarako gabiltza lanean. Gure helburua biktimak berriro biktima ez bihurtzea da.

> **"Emakumeen aurkako biolentzia ez zen osasun publikoaren arazotzat hartzen"**

> **"Beldurgarria da ikustea zenbat neska dagoen dietan nerabe sasoian, hazi behar direnean"**

Gehien landu dugun gaietariko bat da hori. Bestalde, prebentzio lan ugari ere egin dugu. Guatemalan, nerabeen haurduntze tasa handia dugu. Legez, 14 urtetik beherakoekin sexu harremanak abusutzat hartzen dira. Baina horietariko asko haurdun geratzen dira, gainera. Eta herrialde osoan gertatzen da, herririk herri, departamenturik departamentu. Hain zuzen ere, haurdunaldietariko asko 20 urtetik beherakoen artean izaten da. Oso ama gazteak dituen herrialdea da Guatemala.

Prebentzioa lantzeak garrantzi handia izango du Guatemalan ere.

Bai, jakina. Biolentziari alde horretatik ere begiratzen diogu. Bestalde, biolentzia sinboliko legez izendatzen duguna ere aztertu dugu. Biolentzia hori, agerikoa ez denez, ikusten ez denez, zelanbait esateko, badirudi ez dela existitzen. Biolentzia sinboliko horrek bestelako biolentzien gauzak ditu. Hemen, Bilbon, kanpaina bat egin zen eta datu interesgarriak argitaratu ziren, komunikabideen jardunak, zinemak eta bestelakoek iruditerian eta estereotipoen eraikuntzan zuten eraginaz. Neskengan eragin itzela dute argaltasunari dagokionez. Hau da, argal egotea eder egotea dela erakutsi digute, ezta? Bada, beldurgarria da zenbat neska dagoen dietan nerabe sasoian, hazteko eta ondo elikatzeko garaia dutenean, hain zuzen ere. Elika-



Maria Elisabeth Porras, Durangon.

dura-nahasmenduak izugarri hazi dira Estatu Espainiarrean, bulimia, anorexia eta halakoak, eta hori neskei estereotipo konkretu batzuei jarraitu behar dietela erakusten zaielako da. Guatemalan ez da horrelako ikerketarik egin, eta, beraz, ez dago daturik, baina adin txikikoen artean kirurgia modan ipini da, eta arazoa orokorra dela jakina da.

Kirurgia estetikoak?

Bai, gure herrialdeetan [Amerikaz ari da] ohikoa da hamabost urtegaz opariak ematea. Baina, esan dudan moduan, modan ipini da hamabost urteko nerabeei kirurgiak oparitzea, eta diozu: "Baina zer gertatzen zaie?". Jainkoarren, *chiquita* horiek oraindino ez dira guztiz osatu, eta *boobieak* ipini dituzte (titiak handitu dituzte)! Oso konplexua da emakumearen aurkako indarkeriaren gaia. Guatemalan lege bat dugu, Feminizidioaren Legea deritzona. Zelanbaiteko babesa sortzeko baliagarria da, baina asko dago egiteko, asko, Estatua bera ez dagoelako prest. Beraz, badaukagu lege bat, baina asko falta da lege hori egikaritzeko. Oraindino feminizidio asko dago Guatemalan, eta inpunitate tasa ikaragarria da.

Ez duzue lan makala egiten.

Azken urteotan, gainera, biolentzia obstetrikoaren gaiaz ere aritzen gara. Arazo honek beste geruza bat du, gainera. Nabarmen uzten du osasun sistema publikoa, zelanbait esateko. Ez diot hori bakarrik denik arazoa, ezta gutxiago ere, izan ere, ni medikua naiz. Medikuak akusatuta sentitzen dira, gaiaz berba egiteko moduaren arabera, eta, beraz, erronka bat dago hor ere. Eta hor ere prebentzioa da gakoetariko bat. Garrantzitsua da profesionalekin lan egitea, bai gaur egungo mediku, erizain edo gizarte langileekin, eta baita trebatzen dabiltzanekin ere. Guatemalan, gainera, Konstituzioak onartzen dituen lau herri daude, eta, adibide bat ematearren, maiak dira horietariko batzuk; 23 hizkuntza dituzte, eta, gainera, medikuntza tradizionalak pisu handia du. Emaginaren irudiak garrantzi handia du kasu horretan, eta aliatu handiak dira guretzat. Ministeritzaren protokolo batek aitortzen du erdi-urren dauden emakumeek eskubidea dutela emagin batek laguntzeko; baina errealitatean emaginei atea ixten diete, eta emakumeak bakarrik geratzen dira. Beraz, askotan, berez idatzia dagoena betetzea eskatzen dugu. Emaginen kasuan, ondo antolatuta daude, eta urteekin Emaginen Legea onartzea lortu dute. Horrek arazo batzuk konpontzea ekarri du.

"Azken urteotan, biolentzia obstetrikoaren gaia ere bagabiltza lantzen"

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA



HILABETE GUZTIAN ZEHAR

PUNTU KRITIKOEN INGURUKO GALDETEGIA

Online zein udal bulegoetan aurkitu ditzakezu galdetegiak. Bete eta lagundu gaitzazu Zaldibar erosoago eta seguruago bat sortzen!

LIBURU INTERESGUNEAN KABINAN

AZAROAK 24
18:00etan
LIBURUTEGI ZAHARREAN

'NIRE ALABA GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA IZATEA ETA NIRE SEMEAK INDARKERIA HORI PREBENITZEKO GAKOAK' HITZALDIA

Hitzaldi honetan modu argi eta praktikoan azalduko dugu zer egin dezakegun errespetuan, berdintasunean eta enpatian hezteko. Animatu parte hartzera!

AZAROAK 25
19:00etan

ELKARRETARATZEA

Dominika Talde Feministak antolatuta, elkarrekin aldarrikatuko dugu ez dugula emakumeen aurkako indarkeria matxistarik nahi, ez hemen, ez inon.

Zaldibar
Elizateko Udala

"Kontua ez da bakarrik neskak babestea; mutilak indarkeriarik barik hezi behar dira"

GARAZI CAÑADILLAS BERDINTASUN ETA DIBERTSITATE GIZARTE-HEZITZAILEA

Ekua genero-aholkularitza taldeko kidea da Cañadillas. Hilaren 24an berbaldi dibulgatiboa emango du Zaldibarko liburutegi zaharrean, 18:00etan



Garazi Cañadillas. EKUA GENERO-AHOLKULARITZA TALDEA

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Seme-alabak errespetuan, enpatian eta berdintasunean zelan hazi azalduko du, eta, iragarri duenez, berbaldia "praktikoa" izango da, "ez klase magistral bat". "Gurasoak eta, oro har, haurrak eta nerabeak hezten dituzten pertsona guztiak daude gonbidatuta. Ez da aldez aurretik ezer jakin behar; nahikoa da galderak eta kezkak ekartzea", iragarri du.

Seme-alabak hezterakoan, badago normaltzat jotzen dugun baina indarkeriarako ateren bat zabaltzen duen jarrerarik?

Bai, eta horiexek dira arriskutsuenak, hain zuzen ere, ez ditugulako indarkeria legez ikusten. Indarkeria ez da ezerezetik sortzen: sozializazio prozesu baten emaitza da, mutilei edukitzen eta menderatzen irakasten diena, eta neskei zaintzen eta amore ematen. Asko gustatzen zaigu Marcela Lagardek planteatzen duen moduan azaltzea: gizonak boterean haziak dira eta emakumeak, ostera, desboterean. Hau da, mutilak espazioa okupatzeko, erabakitzeko eta protagonista izateko hezten dira; neskak, ostera, bigarren mailan geratzeko, amore emateko eta dagokiena ez erreklamatzeko. Hori guzti hori txikitatik hasten da, egunerokoan, ia ohartu barik.

Ipini dezakezu adibide bat?

Adibidez, desberdin erreakzionatzea lurrera jausten dena neska edo mutila bada. Mutilari "ez da ezer, zu indartsua zara" esatea, eta neskari, ostera, besarkada bat eta babesa ematea. Mutilei emozioak ezkutatzen irakasten diegu, eta neskei hauskortasuna indartzen. Beste adibide bat maitasun erromantikoa da: "Maitasunak dena gainditzen du" kontzeptua, laranja erdiaren mitoa... mito horiek kontrola eta maitasuna nahasteko bidea zabaltzen dute. Baimen kontuekin ere ikusi dezakegu desberdintasun bat baino gehiago. Adibidez, alabari ordutegi zorrotzagoa ipintzea eta semeari askatasun handiagoa ematea. Bestetik, nesken hipersexualizazioa dago. Bularrik ez duten adinetan, betegarridun bikiniak, makillajea, takoiak eta edertasunera bideratutako arreta hauspotzen dira. Mutilen artean, ostera, indarra eta lehiakortasuna. Alde horretatik, gure berbaldiak alde biak hartzen ditu: alabak indarkeriaren biktima ez izateko gakoak eta semeek indarkeria ez erabiltzeko gakoak. Ez dagoelako biktimarik biktimariorik barik, eta hor ipini behar dugu fokua. Prebentzioa ez da bakarrik neskak babestea; mutilak indarkeriarik barik heztea ere bada, eta hori askotan ahazten zaigu.

Zeintzuk dira joera horiek ekiditeko irizpide eta teknikak?

Gakoa hezkidetza da. Eta ez neskak eta mutilak elkarregaz heztea bakarrik, baizik eta benetako berdintasunean heztea, genero-estereotipoak desmuntatuta. Lehenengo hezkidetza-gunea familia da: seme-alabek ikusten dutena ikasten dute, ez esaten zaiena. Mezua ez da teoriaren bitartez heltzen, ereduaren bitartez baino. Alde horretatik, zer egin dezakegu etxean? Etxeko lanak eta zaintzak berdintasunez banatu ditzakegu.

"Gurasoak dira seme-alaben influencerrak; norbera da lehenengo pausoa"

Nork prestatzen duen janaria, nork konpontzen duen apurtutakoa, nork hartzen dituen erabakiak. Era berean, emozioak generoak baldintzatu barik irakatsi daitezke: denok sentitzen ditugu emozio guztiak, denak dira garrantzitsuak eta beharrezkoak, eta horiek denak legitimatu behar ditugu. Txiste eta iruzkin sexistarik ez egitea, eta ez onartzea. Kontsumitzen dituzten telesailak, abestiak, jokoak eta sareak elkarregaz eta begirada kritikoz ikustea; eta emakumezko erreferenteak ezagutaraztea kirolean, zientzian zein kulturan. Berbaldian tresna praktiko bat ere emango dugu: harremanen semaforoa. Familiek eta seme-alabek eguneroko adibideak komentatzen dituzte eta berdean (tratu ona), horian (kontuz!) edo gorrian (indarkeria) kokatzen dituzte.

Zelan bateratzen da etxe barruko hezkuntza prebentibo hori gero umeak kalean topatuko duen giro orokorragaz?

Ezin dugu kaleko giroa kontrolatu, eta ez da hori helburua. Etxeak tresnak ematen ditu: begirada kritikoa, autoestimua, emozioak izendatzeko gaitasuna, eta, batez ere, konfiantza gune bat. Kriminologia feministatik argi dugu prebentzioa ez dela familia bakoitzaren ardura soilik; komunitatearena da. Familiak, ikastetxeak, aisialdi taldeek, kirol taldeek eta erakundeek norabide berean lan egin behar dute. Zaldibarren bertan antolatutako berbaldi hau horren adibide da.

Sare sozialek zer rol dute indarkeria horietan?

Sare sozialek ez dute indarkeria sortzen, baina handitu, azkartu eta ezkutatu egiten dute. Nerabeen arteko genero-indarkeriaren ezaugarri nagusietariko bat



teknologiaren bidezko kontrola da: bikotekidearen mugikorra baimenik barik berrikustea, kokapena partekatzeko exijitzea, pasahitzak "konfiantza-froga" legez eskatzea, etenbako mezuak eta "zergaitik ez didazu erantzun?" lako galderak. Gazte askok ez dute hori indarkeria legez identifikatzen, maitasun edo arduraz mozorrotuta heltzen delako. Gainera, online eta offline bizitza guztiz konektatuta daude: sareetan gertatzen dena bizitza errealean bizi eta sentitzen da, eta kanpoan dagoen matxismoak ugaltzeko modu berriak aurkitzen ditu ingurune digitalean, hala nola etenbako kontrola, bikotekidearen esposizioa edo baimenik barik irudiak zirkulatzea. Gainera, sareetan *matxosfera*, gorroto-diskurtsoak eta pornografia aurkitzen dute, askotan bilatu ere egin barik, algoritmoak eskaintzen dizkielako. Pornografia, hezkuntza sexualik ezean, sexu-hezitzaile bihurtzen da, eta indarkeria eta desberdintasuna erakusten ditu desira legez.

Ikusten duzue eduki sortzaile, influencer eta youtuber maskulinoen eraginik?

Manosfera deritzon fenomenoak kezkatu egiten gaitu. Mutil gazteei zuzendutako edukiak dira, gizontasun eredu jakin bat saltzen dutenak (arrakasta, dirua, indarra, emozioak ezkutatzea, lehiakortasuna) eta sarritan feminismoa mehatxu legez aurkezten dute edo emakumeak gutxiesten dituzte. Eduki horiek indargune bat dute: ez dira ideologia legez aurkezten, entretenimendu legez baino: umorea, hurbiltasuna eta "egiak" esaten dituzte afirmazio modura. Horregaitik ailegatzen dira hain erraz eta horregaitik dute hainbesteko eragina. Eta bai, atzerapausoak ekarri ditzake; dagoeneko horrelakoak ikusten gabiltza. Espainiako 2025eko Gazteriaren eta Generoaren Barometroaren arabera (Reina Sofia zentroaren ikerketa), 15etik 29 urtera arteko mutilen %25,6 ados daude "genero-indarkeria ez da existitzen, asmakizun ideologiko bat da" baieztapenagaz; 2019an %11,9 ziren. Eduki horiek ikusteko, debekuak bakarrik ez du balio. Hobe da edukiok elkarregaz ikustea, galdetzea ("zer iruditzen zaizu?", "zelan sentituko litzateke zure ahizpa hori entzunda?") eta pentsamendu kritikoa lantzea. Eta mutilei beste erreferente batzuk eskaintzea: zaintzen duten, emozioak adierazten dituzten eta berdintasunean bizi diren gizonak.

Telefono mugikorra adinean "atzeratzea" lagungarri izan daiteke?

Lagundu dezake, baina atzeratzea baino garrantzitsuagoa da seme-alabei laguntzea. Mugikorra noiz eman baino gehiago, zelan ematen dugun da gakoa. Adibidez, beste familiekin eta ikastetxeagaz ados ipintzea, haurrak mugikorrik bako ume 'bakarra' izateko presioa arintzeko. Lehenengo mugikorra mugekin eta familia-akordioekin ematea: ordutegiak, logelan gauez pantailarik ez, zer aplikazio erabili daitekeen eta zergaitik. Konfiantza guneak eraikitzea ere inportantea da: "Zerbait arraroa ikusten baduzu edo norbaitek presionatzen bazaitu, kontatu; ez zaitut zigortuko" esatea edo telefono mugikorraren erabileran gu geu ere eredu izatea.

Gurasoek zelan detektatu dezakete seme-alabak halako egoera bat bizitzen ari diren?


"Umeen arteko kontuak dira" eta modu horretako esaldiek bihurtzen dute, hain zuzen ere, indarkeria ikusezin. Genero-indarkeriaz berba egitean bikote heldu bat izaten dugu buruan, baina nerabezaroan ere gertatzen da, eta berezko ezaugarriak ditu: espazio publikoetan gertatzen da (institutua, parkea, plaza), teknologiaren bitartez kontrolatzen da, eta haustura-adiskidetzeak sarritan gertatzen dira. Gogo aldaketak gerta daitezke, tristura, beldurra, autoestimu txikia. Isolamendua ere bai, lagunengandik eta familiagandik urruntzea. Lo arazoak izatea eta errendimendu akademikoa jaistea...

Zelan jokatu behar du gurasoak indarkeria matxistaren prebentzioan, kontuan izanda bera dela umearen erreferentea eta umeak haren jarrerak erreproduzitu ditzakeela?

Gurasoak dira seme-alaben lehenengo influencerrak. Beraz, lehenengo pausoa norberari begiratzea da: zelan banatzen ditugu etxeko lanak eta zaintzak, zelan konpontzen ditugu gatazkak, zelan berba egiten dugu emakumeez eta gizonez, zertaz barre egiten dugu... Ez da perfektua izatea. Denok hezi gaituzte gizarte matxista batean, eta denok erreproduzitzen ditugu jarrera batzuk. Garrantzitsuena da akatsak onartzea eta seme-alaben aurrean zuzentzea: "Lehen esan dudana ez dago ondo, eta azalduko dizut zergaitik". Horrek ere hezten du, eta asko. Eta semeak indarkeria erabiltzen badu, ez kriminalizatu, baina ezta minimizatu ere. Ez du "tratu txarren emaile" etiketa behar, baina argi utzi behar zaio indarkeria erabiltzen dabilela, eta erantzukizuna berea dela, inoiz ez biktimarena. Muga argiak ipini, aitzakiarik ez onartu ("urduri nengoen", "probokatu egin ninduen", "mutilen gauzak dira"). Nerabezaroa ikasteko etapa da; oraindino garaiz daude euren jokabidea berriro hezteko. Helburua ez da zigortzea, baizik eta erantzukizuna hartzea eta indarkeria zikloa ez errepikatzea.

Zelakoa izango da berbaldia? Kasu praktikoak landuko dituzue?


Hitzaldi parte hartzailea izango da, galderekin eta elkarrizketagaz, ez klase magistral bat. Ama, aita eta, oro har, haurrak eta nerabeak hezten dituzten pertsona guztiak daude gonbidatuta. Ez da aldez aurretik ezer jakin behar; nahikoa da galderak eta kezkak ekartzea.



BURUARI KLIK!

4 LERROAN

2 jokalari: txandaka zirkuluak behetik gora margotu, eta lau lerroan lortzen dituenak irabaziko du!



ITZALAK

Zein itzal dagokio irudi bakoitzari?



KIMU KUKUKA



anboto

2027

Durangaldeko egutegia

TENPORAK

3€



OHIKO SALTOKIETAN SALGAI

ABADIÑO Petite eta Abadiñoko estankoa

ATXONDO La Kompra eta Itziar taberna

BERRIZ Egun on okindegia

DURANGO Etxebarria prentsa denda eta Hitz liburudenda

ELORRIO Txokolat

GARAI Herriko taberna

IURRETA Iurreta kopistegia

IZURTZA Herriko taberna

MAÑARIA Herriko taberna Talka

MALLABIA Herriko taberna

OTXANDIO Korostondo janari denda

ZALDIBAR Imendia prentsa denda

ZORNOTZA Ayerdi prentsa denda

ORTURAKO INFORMAZIOA

ILARGI FASEAK

HERRI ETA AUZOETAKO JAIAK

DURANGALDEKO BASERRIAK

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / *agenda@anboto.org*

BARIKUA 20

- **ABADIÑO 'Garbigailua'** Enbata-Aldizkari Biziaren ikuskizuna. Probalekuan, 19:00etan.
- **ABADIÑO Bertso afaria** Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga bertsolariekin. Izena emateko: 680116710. Mendiolako Errekatxo elkartean, 21:00etan.
- **ATXONDO 'Go!azen'** 13. denboraldiaren aurrestreinaldia. Erabilera anitzeko gelan, 20:00etan.
- **DURANGO 'Landabarrenako Lamia. Garai 1884- Mexiko Hiria 1970'** Pilar Zubiaurreren lanak. Arte eta Historia Museoan, abendura arte.
- **DURANGO Durangaldeko Gazteen X. Arte Lehiaketa** Pintura eta marrazketa lehiaketa 12tik 18 urtera bitarteko gazteei zuzenduta. Ezkurdi Aretoan, azaroaren 27ra.
- **DURANGO Azucena Fernandezen lanak**. Ezkurdi aretoan, azaroaren 29ra bitartean.
- **DURANGO 'Arte eta Natura'** Juan Solaguren Uriondoren lanak. Ezkurdi aretoan, azaroaren 29ra bitartean.
- **DURANGO 'El aviador'** Demian konpainiaren ikuskizuna. Otamotzena auzogunean, 17:30ean.
- **ELORRIO R.S. Basque Faktor Kontzertua** Arriolako XXXVII. Jazz Blues Jaialdiaren barruan. Arriola antzokian, 20:00etan.
- **ELORRIO 'Gailurretan izan gaitun'** Erakusketa, Erdellak antolatutako Mendi Astearen barruan. Iturri kultur etxean, azaroaren 28ra arte.
- **IURRETA 'Ispirit'** Aretha Gospel taldearen kontzertua, Musikaldiaren barruan. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.
- **ZALDIBAR 'Beyond the club'** Penelope Cerezo argazkilariaren lanekin osaturiko erakusketa. Xerra espazioan.
- **ZORNOTZA XXXIX. Bosteko: 'Plazatik ezin dut itsasoa ikusi'** Maider Gonzalo, Zuhar Iruretagoiena eta María Muriedas artista garaikideen lanak ikusgai. Zelaieta zentroan, azaroaren 27ra arte.
- **ZORNOTZA 'Hasta el último baile'** Eva Guerreroren dantza konpainiaren ikuskizuna. Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZAPATUA 21

- **ABADIÑO 'Laia'** Jarapandra Teatro konpainiaren ikuskizuna. Errota kultur etxean, 19:00etan.
- **ATXONDO San Martintxo ospakizuna** Mokadutxoaren ondoren, ibilbide labur bat musikak girotuta, Axpeko plazan, 11:30ean.
  Igel eta porra txapelketa, 13:00etan.
  Bazkari musikatua, 14:30ean.
- **BERRIZ Izaki Gardenak** Kontzertua. Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan.
- **DURANGO Udaletxea eta bere balio arkitektonikoa ezagutzeko aukera** Bisita gidatua, gaztelaniaz. Aurretik izena eman behar da Durangoko Udalean. Udaletxean, 11:00etan.
- **DURANGO Miriam Chef Integratiboa** Show cooking saioa Merkatu Berrian, 11:30etik 13:00etara.
- **DURANGO Dantzaro** Oinkari taldeak girotutako dantzaldia, Andra Marian, 19:00etatik 21:00etara.
- **DURANGO 'Astarloa Otxotea'** Kontzertua, José Angel Mugerzaren zuzendaritzapean. San Frantzisko elizan, 20:00etan.
- **ELORRIO Eric Hansson Band** Kontzertua. Arriolako XXXVII. Jazz Blues Jaialdiaren barruan. Arriola antzokian, 20:00etan.



ITUZLI KONPAINIA

ABADIÑO Antzerkia Itzuli konpaniaren *Adriene Bergson Johnson* antzezlana ikusteko aukera egongo da domekan Abadiñon. Izen bereko enpresari texastarrak argia ikusi du XXI. garai likido eta ilun hauetan, eta prest dago euskal kultura salbatzeko. Horixe du abiapuntu Maryse Urrutyk idatzi eta interpretatutako lanak. Txanporta kultur etxean, azaroaren 22an, 19:00etan.

- **ELORRIO Cul Zag** Kontzertua. Portalekuan, 22:30ean.
- **ZALDIBAR San Andres Jaiak** Adin guztietarako jarduerak rokodromoan, 16:30etik 19:30era.
- **ZORNOTZA 'Taupada Oihartzunak'** Zornotzako Musika Bandaren kontzertua, Galiziako Odaiko Percussion Group taldeagaz, Aritz Labradorren zuzendaritzapean. Zornotza Aretoan, 20:00etan.

DOMEKA 22

- **DURANGO 'Playlist'** Kontzertua Aupa Strings taldeagaz, XXXVII Musika hamabostaldiaren barruan. San Agustin kulturgunean, 18:00etan.
- **DURANGO 'Encuentro con Pilar Zubiaurre'** Alaitz Muro Larizgoitiak gidatutako sormen tailerra. Aldez aurretik izena eman behar da. Arte eta Historia Museoan, 11:00etatik 14:00etara.
- **ELORRIO Azoka** Bigarren eskuko artisau azoka. Plazan, 10:00etatik 15:00etara.
- **IURRETA Umeentzako mendi irteera** Neberondo eta Atxerdi Kobazulora. Izena emateko: *zaldai@hotmail.com*. San Andres auzoko ermitatik, 10:00etan.
- **ZALDIBAR San Andres Jaiak** Zaldibarko XXVII. Neguko Nekazari Azoka. Euskal Herria etorbidean, 11:00etan.

ASTELEHENA 23

- **ABADIÑO Izen ematea** Isiotu Kultur Elkarteak eta Alluitz Mendi Taldeak, udalaren laguntzagaz, mendi irteera antolatu dute Irulegira azaroaren 28rako. Izena ematea 10 euro da (ikasleek dohainik). Ordainketa Alluitz Mendi Taldeari egin beharko zaio. Azaroaren 23a da izena emateko azken eguna.

EGUENA 26

- **ATXONDO 'Beste Internet bat posible da?** Solasaldi-zikloa. Gaztetxean, 19:00etan.
- **DURANGO 'Ardo dastatzea'** BIBA Ardoak ekimenak Euskal Herriko hainbat eskualdetako sei ardo ekologiko eta natural ekarriko ditu merkatura. Merkatu Berrian, 18:00etatik 20:00etara.

BARIKUA 27

- **ABADIÑO 'Memoria historikoa'** Berbaldia. Hizlaria: Nieves Concostrina, kazetaria eta idazlea. Errota kultur etxean, 19:00etan.
- **BERRIZ Garazi Esnaola** Kontzertua. Berrizko Kultur Etxean, 20:00etan.
- **DURANGO 'Diso & Aeneas'** Opera All'Antica Musika elkartea. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.
- **DURANGO 'Dos zorras polarizadas'** Bakarrizketa, Raquel Torres eta Marta Sis aktoreen eskutik. Otamotzena auzogunean, 19:00etan.
- **ELORRIO 'R&J'** La Dramática Errante konpiniaren ikuskizuna. Arriola antzokian, 20:00etan.
- **ZALDIBAR San Andres Jaiak** Argazki erakusketa kolektiboa liburutegi zaharrean (18:30- 20:30). Jaien hasiera iragartzeko txapligua, "Viajando con Apu" familiaren eskutik,19:00etan. Pintxo solidarioak. DJ Josemarik girotuta, Olazarren, 19:45ean. Helmuga elkarteak antolatuta, ekitaldian Danobat emakume zentroarentzat batuko da dirua.
- **ZALDIBAR i6 + Nehor + Reketabe MJ** Kontzertua. Gaztetxean, 22:00etan.
- **ZORNOTZA 'Dysphoria'** Histrión Teatroren ikuskizuna. Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Sacamantecas
Domeka 22: 19:00.
La isla olvidada
Domeka 22: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Los juegos del hambre: Amanecer en la cosecha
Barikua 20: 17:30, 20:30.
Zapatua 21: 18:00, 21:00.
Domeka 22: 16:30, 19:30.
Astelehena 23: 18:30.
Martitzena 24: 18:30.
Eguaztena 25: 19:00.
Citas: La película
Barikua 20: 18:00, 20:30.
Zapatua 21: 19:30, 21:30.
Domeka 22: 18:15.
Astelehena 23: 18:00, 20:15.
Martitzena 24: 18:00, 20:15.
Eguaztena 25: 19:00.
Hechos probados
Barikua 20: 18:00.
Zapatua 21: 21:30.
Domeka 22: 20:15.
Astelehena 23: 20:15.
Martitzena 24: 20:15.
Rose
Barikua 20: 20:30.
Zapatua 21: 19:30.
Domeka 22: 19:30.
Astelehena 23: 18:00.
Martitzena 24: 18:00.
El gato con sombrero
Zapatua 21: 17:00.
Domeka 22: 17:00.
Ratones al ataque: operación navidad
Zapatua 21: 17:00.
Domeka 22: 16:30.
Pavarotti 90th The Grand Tribute
Eguaztena 25: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Sacamantecas
Domeka 22: 20:00.
Astelehena 23: 20:00.
La isla olvidada
Domeka 22: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Karateka
Domeka 22: 20:00.
Astelehena 23: 20:15.
Doraemon: aventuras en el mundo del arte
Domeka 22: 17:00.

INMOBILIARIAK

ETXETXO INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO
www.inmoetxetxo.com


C.E.E.= F. 325.000 €

ABADIÑO (ZELAIETA) 4 logela, 2 komun, sukaldea 25 m2-ko terrazarekin eta egongela beste terraza batekin. 40 m2-ko garaje itxia. 80 m2-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. Eguzkitsua.


C.E.E= E 229.000€

ARTEKALE 80m2. 2 logela,, 2 komun, sukaldea eta egongela. Balkoia. Bizitzen sartzeko moduan.


C.E.E=D 365.000 €

TXIBITENA 103m2. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Garajea eta ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.


C.E.E: G. 170.000 €

TABIRA 71 m2. 2 logela (3 logela egiteko aukerarekin) komuna, sukalde handia eta egongela. Garaje handia trastelekurako sarrera zuzenarekin.


C.E.E.:G 66.000 €

DURANGO Lokal komertziala. 76 m2. Instalazio elektrikoarekin. 2 kaletara sarrera eta irteerarekin.

AMBOTO INMOBILIARIA

Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. - 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

ZUMALAKARREGI 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria.

MONTEBIDEO Berriztatzeko. 175m2, 6. soliaruan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak.

MONTEBIDEO 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia.

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatzeko.

FRANTZISKO IBARRA 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia.

GOIENKALEA 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.

GOIENKALEA 2. solairua. Halla, 3 logela, sukaldea, 2 komun eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan.

BARRENKALEA Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

URRUTXUA 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea.

IURRETA Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeko.

ABADIÑO Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

MAÑARIA 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

ERMODO KALEAN 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIRUAN

DURANGO Lekker taberna alokatzen da. 100 m2. 40 m2-ko jantokia, sukaldea, komunak. Zure negoziorako aproposa.

ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

ELORRIO 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI

BERRIZ

BERRIZ Eitua industrialdea. 600 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com


C. E. E: Bidean 229.000€.

DURANGO: ERRETENTXU: 92,70m2 Halla, egongela, sukalde jantzia, 4 logela eta komuna. Balkoia. Birbanatzeko aukera. Egoera onean. 23 m2-ko garaje itxia erosteko aukerarekin + 28.000 €.


C. E. E.: E. 229.000€.

DURANGO: ARTEKALEA: 77 m2. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Ezin hobea. Etxe erdiak kanpora ematen du. Erdigunean kokatua, zerbitzugunez inguratuta.


C. E. E.: E 410.000€.

DURANGO: TRONPERRI: 104,42m2. Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ur beroa eta berogailua gas naturalarekin dauka. Etxebizitza altua eta argitsua. 47,30 m2-ko ganbara, estudio moduan egokituta eta etxebizitzarekin konektatua. 40 m2-ko garaje itxia.


C. E. E.: E. 220.000€.

IURRETA: MASPE: 57,62m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 2 logela (jatorriz 3), despentsa eta komuna. 15 m2-ko terraza. PVCzko leihoak ditu, kristal bikoitzarekin eta gas naturala. Argitsua. Zonalde lasaia.


C.E.E.:E 287.000 €

IURRETA: MASPE: 88 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna, despentsa eta bainugela. Egoera onean. Argitsua. Zonalde lasaia, zerbitzugunez inguratuta.

Fernando Uribe AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea, 15 behea - DURANGO
Tel.: 946 816 423 - www.fernandouribe.es

DURANGO

ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 €/ E.E:Z=E

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F

GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F

SAN INAZIO AUZUNEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A

ABADIÑO

DENDARIKOA: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.

SAN PRUDENTZIO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. 2 balkoi. Ganbara. Igogailua. 315.000 € / E.E.Z=G

ATXONDO

ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.

BERRIZ

BIDEGAIN KALEA: Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trastelekua. 450.000 €/ E.E.Z=Bidean

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €.

ZENGOTITABENGOA KALEA: 4 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. E.E.Z=Bidean. LEHEN 318.000 € / ORAIN 310.000 €.

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

DURANGO

ANTSO EZTEGIZ: Garajea. 45 € / hilean. Motorrentzat egokia.

MADALENOSTE: Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €.

MONTEBIDEO ETORBIDEA: Garaje itxia. 23.000 €.

TRONPERRI KALEA: Garajea. 70 € / hilean.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO

DURANGO

ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E:Z=E

ANDRA MARI KALEA: 62 m2-ko lokala. 850 € / hilean / E.E.Z=Bidean.

ARKOTXA KALEA: 122 m2-ko lokala. 900 € / hilean. E.E.Z=Bldean.

BARANDIARAN KALEA: 50m2-ko lokala.Salgai. 140.000 €.

IBAIZABAL AUZUNEA: 60 m2-ko lokala. LEHEN 240.000 € / ORAIN 198.000 € E.E.Z=E

KALEBARRIA: 82 m2-ko. 92.390 € / E.E.Z=E

KOMENTU KALEA: 75 m2. Lokala. 900 € / hilean.E.E.Z=E

ABADIÑO

SAN ANDRES KALEA: 11 m2-ko lokala. 40.000 € / E.E.Z=bidean.

ALIENDALDE: 285 m2-ko pabilioia. LEHEN 250.000€ / ORAIN 210.000 €

BERRIZ

EITUA: 500 m2-ko pabilioia. 570.000 €.

IURRETA

ZUBIAURRE: 11 m2-ko lokala. 20.000 € negoziagarriak.

DOKUMENTALA

"Atxarteko gatazka gaur egungo kontzientziak pizteko abiapuntua da"

PEDRO LUIS SANCHEZ ALPINISTA ETA ZINEMAGILEA

Atxarteko gatazka ekologikoa gertutik ezagutu zuen. Orduan grabatutako irudiekin dokumentala osatu eta asteon Elorrioko Mendi Astean erakutsi du



Pedro Luis Sanchezen dokumentala eguaztenean eman zuten, Erdellako Mendi Astearen barruan.

Joseba Derteano ELORRIO

80ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoaren hasieran, protesta-mugimendu zabala sortu zen Urkiolako Parke Naturala sortzeko dekretua ez betetzearen aurka. Kontratua agortzean, harrobiaren ustiapena etetea jasotzen zuen dekretuak. Pedro Luis Sanchez bilbotarra mugimendu haren lekuko izan zen eta garai hartako irudi asko grabatu zuen 8 milimetroko kameragaz. Orain, material hura oinarri hartuta, dokumentala osatu du, bere ahots bidezko kontakizunagaz. Eguaztenean Elorrion erakutsi zuen lana, Erdellak antolatutako Mendi Astearen barruan. Dokumentalaren helburua ez da iraganeko borroka gogoratzea bakarrik, orduko mugimendua gaur egungo gizarteari buruz hausnartzeko eta kontzientziak pizteko abiapuntu bihurtzea baino.

Belaunaldi berriei zelan esplikatuko zenieke Atxarteko gatazka ekologikoa zer izan zen?

Bere testuinguruan ondo kokatu behar da. 80ko hamarkadako krisi sakonetik gentozen, eta Europako Ekonomia Erkidegoan sartzeak ere eragina izan zuen: industria-sarearen zati handi bat desegin egin zen, eta langile asko langabezian geratu zen, ni neu tartean. Horrek guzti horrek eragina izan zuen gizartean, eta bazegoen egoeraren aurrean erreakzionatzeko nahi bat. Orduko egoerak hain ezaguna egin zen Urkiolako Parke Naturala sortzeko eta definitzeko dekretuagaz, harrobien ustiapen-kontsezioa amaitzeagaz eta gizartean pilatzen ari zen haserreagaz kointziditu zuen. Orduan, errazagoa zen injustua zen zerbait erreklamatuko zuen jendea aurkitzea.

Gatazkak hainbat urte iraun zuen. Zelan bizi izan zenuen mugimenduaren bilakaera?

Hasieran, eragin txikia izan zuen gizartean. Baina jendea gatazkaren berri izaten ari zen neurrian, mugimendua handitzen joan zen eta ideia eta pentsamolde askotako jendea batu zen Urkiolaren Aldeko Batzordea (UAB) plataformaren inguruan. UABren bidez antolatu ziren mobilizazioak, askotariko elkarteak eta norbanakoak bilduz. Esaten dudanaren beste adibide bat Bilbon egin zen manifestazioa da; manifestazioak aurrera egin ahala, inguruko jendea bertara batzen zen. Manifestazio koloretsu eta baketsua izan zela gogoratzen dut. Mugimendua koordinatzen zuen UAB plataformaren barruan zeuden taldeak batu ginen bertan.

Noiz konturatu zineten mugimenduak izaera kolektibo bat hartu zuela?

Kontuan hartu behar da orduan ez zegoela mugikorrik eta sare sozialik. Hara eta hona joan behar izaten genuen elkartu eta gauzak lotzeko. Dena askoz ere modu oinarrizkoagoan egiten genuen. Baina denbora aurrera joan ahala sareak sendotzen joan ginen. Gero, data bat ipini behar banu, esango nuke gaiak eta mugimenduak beste dimentsio bat hartu zutela hamakaren protesta hasi zenean, dudarik barik.

> **"Gaur egun ere, ekologiaren ikuspuntutik gai askoren inguruan altxatu daiteke ahotsa"**

> **"Tanta batek gutxi dirudi, baina askok ibaia egiten dute. Ideia hori helarazi gura dut"**

Zer izan zen hamakaren protesta?

Ekintzaileak hamaketan zintzilikatu ziren harrobiko hormetan. Txandaka egoten ziren. Lan nekeza zen, baina baita ikusgarria eta ilusionagarria ere. Hedabideen arreta erakarri zuen eta gai mediatiko bihurtu zen. Protesta horrek bultzada handia eman zion mugimenduari azken urteetan. Oro har, gatazka haren azken urte biak azkarragoak eta biziagoak izan ziren.

Zelan lortu zen jatorri eta pentsamendu desberdinetako jendea helburu bateratu baten alde batzea?

Bazegoen aurretik ere asegabetasun giro bat, eta krisiak asko lagundu zuen jendea elkartzen. Horrela, eskalatzaileek eta ingurumenaren aldeko ekintzaileek bat egin zuten. Argi dago ez zuela sokak batu jendea, baizik eta denek altxor handitzat zuten ingurune hura zaintzeko nahiak.

Hiru hamarkada baino gehiago joan dira ordutik. Perspektiban begiratuta, zelan baloratzen duzu ordukoa?

Gauza bi etortzen zaizkit burura. Batetik, oso mugimendu interesgarria izan zela. Bestetik, ordukoa gaur egun errepikatzea oso gatx ikusten dudala, testuinguru desberdin batean bizi garelako konpromisoari dagokionez.

Elorrioko Mendi Astean erakutsi duzun dokumentalaren helburu nagusia ez da orduan gertatutakoa gogoratzea. Hura abiapuntu bat da?

Lehenengo eta behin, dokumentalaren helburua ez zen inor seinalatzea. Bakoitzak bere modura bizi eta gogoratu du etapa hura. Nire asmoa oroitzapen horiek zerbaitetarako erabiltzea da: ikuslearengan kontzientzia pizteko, emozio bat sortzeko eta gaur egungo hainbat gairen inguruan hausnartzera bultzatzeko. Zinemak badu gaitasun hori, emozioen bitartez kontzientziak piztekoa. Dokumentalean esaldi batek ondo laburbiltzen du ideia hori: "Zenbat istorio kabitzen da ur tanta bakar batean?". Tanta bakar batek ezer gutxi dirudi, baina tanta askok ibaia osatzen dute. Eta horixe da, hain zuzen ere, transmititu gura dudana. Gaur egun ere ekologiaren ikuspuntutik gai askoren inguruan altxatu daiteke ahotsa. Eta gizarteko beste gai askotan ere beste hainbeste gertatzen da.

Dokumentalean, gainera, gaur egun jasotzen ditugun mezuak zalantzan ipintzeko eta errealitateari ikuspegi kritikoz begiratzeko gonbit egiten duzu.

Kritikoak izan behar dugu kontatzen dizkiguten gauzez. Politikariek eta interes hau edo bestea dutenek errealitate zehatz bat sortzen digute. Badakite non dauden gizakiaren garunaren ahulguneak, eta hori baliatzen dute. Eduard Punset dibulgatzaile zientikoak liburu batean esaten zuena dut gogoan: "Giza garuna gure etsairik handiena da, egoista delako eta beti erosotasuna bilatzen duelako". Beraz, kontatzen digutenaren atzean zer dagoen bereizten asmatu behar dugu. Mezu hori helarazi gura diet herritarrei dokumentalaren bitartez.



Iker Fidel garaipena ospatzen. RFER

ERRUGBIA

Iker Fidel Escobar errugbilaria Europako txapeldun

J.D. DURANGO

Iker Fidel Escobar errugbilaria (Durango, 2008) Europako txapeldun izan da Espainiako 18 urtez azpiko selekzioagaz. Joan zen zapatuan Pragan (Txekiar Errepublika) jokatutako finalean, Espainiak Georgia menderatuta lortu zuen garaikurra: 23-17. Iker Fidel titular izan zen finalean, eta ia partidu osoa jokatu zuen: 70 minututik 50. "Gogor entrenatu gara, entrenamenduek bere fruitua ematen dute eta oso pozik nago", adierazi du errugbilari durangarrak.

Errugbian Durango Rugby Taldean hezi eta gero, iazko abuztuan Baionako Aviron klub prestigiotsura batu zen, 18 urtez azpiko taldera. Aurten beste urrats bat eman du eta gaur egun 21 urtez azpiko taldean dabil.

ZIKLO-KROSA

Abadiño eta Elorrio ziklo-krosaren topaleku bihurtuko dira 28ko eta 29ko lasterketekin

Herri bietako probak Euskadiko Federazioko Koparen barruan daude

J.D. ELORRIO

Errepideko denboraldia amaituta, ziklo-krosak hartuko du protagonismoa udazken-negu sasoian. Euskadiko Federazioko Ziklo-kros Kopa martxan da dagoeneko. Zortzi lasterketa aurreikusten ditu. Lehenengoa Zornotzan lehiatu zen joan zen asteburuan eta azaroko azken asteburuan Abadiñok eta Elorriok hartuko dute erreleboa.

Abadiñoko ziklo-krosa azaroaren 28ko zapatuan izango da. Aurten udaletxe atzeko landan prestatuko dute ibilbidea. Eguna master mailako lasterketekin hasiko dute, 09:30ean. Segidan, kadete eta junior mailetakoak hasiko dira, 10:30ean eta 12:00etan, hurrenez hurren. Azkenik, 13:00etan, eliteen, 23 urtez azpikoen eta Master 30 mailakoen lehiagaz gozatzeko aukera egongo da.

Bestalde, Elorrioko ziklo-krosaren 49. aldiak jardunaldi bi izango ditu San Joseko inguruko landetan. Azaroaren 28an gazteen eguna izango da, txirrindularitza eskolena. 15:00 inguruan hasita mailaz maila lehiatuko dira, 17:00 ingurura arte.



Elorrion 800 bat parte hartzaile batzea itxaroten dute egun bien artean.

Azaroaren 29an kadeteetatik masterretara arteko mailek hartuko dute erreleboa, 09:15ean hasita. Elite mailako, 23 urtez azpiko eta Master 30 mailako lasterketak 12:15ean hasiko dira. Irteera puntuan Jonathan Lastra eta Alicia Gonzalez txirrindulari profesionalak izango dira, eta irabazteko hautagaien artean daude. Txirrindulari biak ziklo-krosaren aurtengo aldia aurkezteko prentsaurrekoan izan ziren eguaztenean, Julian Gorospe eta Alberto Leanizbarrutia txirrindulari ohiekin batera. Ibilbideari dagokionez, aurtengo zirkuituak 2,4 kilometro izango ditu, iazkoak baino 600 metro gehiago.

Egun biak kontuan hartuta, Elorrioko txirrindulari elkarteko antolatzaileek 800 bat txirrindulari batzea itxaroten dute. Domekan Jose Maria Gonzalez Perez txirrindulari ohia omenduko dute. Bere ibilbide profesionalean La Casera-Bahamontes bezalako taldeetan aritu zen. Espainiako txapeldun izan zen, eta munduko txapelketan zortzigarren postua eskuratu zuen.

KICKBOXING

Sune Larrea elorriarra munduko txapeldunorde

J.D. ABADIÑO

Sune Larrea elorriarrak zilarrezko domina irabazi du kickboxingeko munduko txapelketan. 16 urteko kirolaria junior mailan geratu da munduko txapeldunorde, joan zen asteburuan Madrilen jokatutako ISKA erakundearen txapelketan. Larrea Indar Xsport klubeko kidea da. Euskadiko txapelketako garaipenari eta Espainiako txapelketan egindako lanari eskerrak aritu da munduko txapelketan. Bere ibilbidean bost bider irabazi du Euskadiko txapela, eta hiru bider geratu da Espainiako txapeldun, zenbait mailatan. Elorrioko klubak gainerako kirolarien emaitzak ere azpimarratu ditu. Esaterako, Marina Valverdek, Leire Leonek, Bingen Urienek eta Atlas Adnanek brontzezko domina eskuratu dute.



Sune Larrea elorriarra.

JOKALDIA



AITOR ARABIOURRUTIA OBREGON
TRINKETA

Debuta

Hilabete joan da da euskal pilota selekzioak munduko txapelketa batean debuta egin zuenetik. Argentinak eta Uruguaik elkarrekin antolaturiko txapelketa izan da debut honen egoitza pribilegiatua.

Selekzioak hirugarren postua lortu zuen dominen sailkapen orokorrean, Espainiaren eta Argentinaren atzetik. Guztira, 12 izan dira lortutako dominak; urrezko lau, zilarrezko zazpi eta brontzezko bat. Kontuan izan behar da, adibidez, euskal selekzioko trinketeko jokamoldeak berandu iritsi zirela sailkatze prozesura eta ez zutela munduko txapelketa honetara iristeko aukerarik izan sailkatzeko punturik lortu ezin izan zutelako.

Baina, hemendik eta lau urtera, gure selekzioa bertatik bertara mundialean ikusteko aukera izango dugu, Bilbon eta Gernikan jokatuko baita 2030eko munduko euskal pilota txapelketa. Orain balantzea egiteko ordua da eta akatsak zeintzuk izan diren (beti dago zer hobetu beharra) hausnartzeko momentua den arren, burua lau urtera begira izan behar dugu denok. Lau urte barru, gure kirolaren bitartez eta gure lurraldetik bertatik, nortzuk garen erakusteko aukera izango dugu, beti kiroltasunez eta zintzotasuna ardatz. Hau izan baita, aurtengo munduko txapelketan gehien aipatu dena gure selekzioari buruz, bere kiroltasuna. Inoren kontra joan beharrik ez baitago, kirol emaitzez aparte itxura ona emateko.

Esan bezala, lau urteko ibilbidea geratzen da orain. Fruituak jasotzeko, aurrez lan gogorra egitea besterik ez zaigu geratzen, eta sektore guztietatik egin beharko dugu bultza, euskal selekzioa denona baita. Beraz segi dezala bideak, hau hasi besterik ez da egin eta.

"Gure selekzioa bertatik bertara ikusteko aukera izango dugu; 2030ean Bilbon eta Gernikan izango da munduko txapelketa"

"Fruituak jasotzeko, sektore guztietatik egin beharko dugu bultza, euskal selekzioa denona baita"

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

LAU-HORTZA

Maurizia



MAITE EUBA
AREITIOAURTENA

Izena duen oro bada. Izena izana izateko. Horregatik ez zen izango, ez dakit oso kontziente nintzen "Marina" eta "Soraya" bataiatu nituenean alboko jostunak neurrira positako eduki nituen lehenengo arropak umetan. Testuingurua ezagutzeak asko errazten du ulertzea: sasoi hartan gure mundu txikian oso popularra zen Soraya, *begirada tristedun printzesa*. Baserriko txakurrak Winston eta Trosky; Instagram, X, ez inolako sare barik ere ailegatzen zitzaizkigun orduan ere modako joerak, onak eta txarrak; ekialdetik zein mendebaldetik. Ez naiz mitozalea, baina badago miresten dudanik, Maurizia Aldeiturriaga Zabala da bat (Zeberio, 1904 - Artea, 1988). Baserriko lan gogorrak eta bizi izan zuen sasoiak, emakumea izanda egin kontu, ez zuen sekula amore eman, ez desanimatu bere pasioari ekiteko eta danen gainetik panderojole, abeslari bikaina eta emakume indartsua izateagatik ezagutzen dugu gaur egun. Harrezkero, hainbat abeslarik eta taldek erabili izan dute Mauriziak berak bere burua hauspotzeko erabiltzen zuen esaldia. Hori da kontua, inoren animoari begira egon barik, norberak oihukatzea aupa Maurizia!

Horregatik iruditu zitzaidan aproposa baino aproposagoa izen berori ematea bidaietarako nire lau gurpildun lagunari; bizipoza eta ilusioaren omenez izena eta izana lau haizeetara zabaltzeko. Aupa Maurizia!

AKUILUA

"Erronka bat izan da Durangoko JAEDen standeko pertsiana margotzea"

AGEDA IBARRA DELGADO ETA JUAN AZURMENDI ETXARTE ARTISTAK

Aitziber Basauri DURANGO

Hiru hamarkada baino gehiago joan dira Juan Azurmendik (Durango, 1963) Kurutziaga akademia zabaldu zuenetik. Margotzeko askotariko teknikak lantzen ditu. Denen artean, aerografiak liluratu du beti. Maisuak eta ikasleak, Ageda Ibarrak (Durango, 2003), elkarregaz margotu dute Durangoko JAED elkartearen standeko pertsiana, aerografia baliatuta. Irailean hasi ziren lanean, eta teknika bistaratzeko aukera izan daitekeela uste dute.

Zer du berezia aerografiak?

Ageda Ibarra: Mihisea ukitu barik lan egiten da, grafiti sofistikatu bat balitz legez. Oso trazu finak egiten ditugu, eta pintzelak ematen ez duen bestelako askatasuna ematen du. Teknika ezezaguna da, eta kuriosoa. Hori bai, ez dago errore-marjinarik.

Juan Azurmendi: Aerografoan pintura sartuta, kakoagaz behar den airea ematen diogu, eta ilea bezain trazu meheak zein lausotu handiak egin daitezke. Gatxena aerografoa erabiltzen jakitea da. Bestela, edozein margogintza teknikaren modukoa da. Motoetarako neurrira egindako lanak daude modan; buruko kaskoak, mugikorrak, erakusleihoak... margotzea. Esku hutsezko marrazketa da, eta ematen duen lausotua du ezaugarri nagusi. Askotan ez dakigu margotuta dagoen ala pegatina bat den, akabera oso fina du.



Ibarra eta Azurmendi, Kurutziaga akademian.

Zelako lana izan da JAEDen standeko pertsiana margotzea?

J.A.: 16x2,70 metroko pertsiana da eta denbora behar da osorik margotzeko. Pistola handiagoak erabili ditugu atzealderako, baina irudiak aerografoekin egin ditugu. Zailtasuna izan du, formatutik hasita.

A.I.: Ematen zuen ez genuela amaituko. Niretzat erronka bat izan da.

Zelan aukeratu zenituzten irudiak?

J.A.: JAEDen standa bera Durangoko irudi bilakatu da eta herriko elementuak sartu behar genituen. Nik motoak margotu ditut batez ere, beste gai batzuekin. Batetik, ikusgai ez dauden elementuak hartu ditugu (Tabirako Basterretxearen eskultura, Garai Jauregiaren alboko iturria...). Bestetik, Durangoko irudi ezagunak islatu ditugu (Kurutziagako gurutzea, Pinondo, Kurutziagako eta Ezkurdiko iturriak...), ikusmolde berri batekaz. Dantzariagaz Iurretari egin diogu keinu, eta Anboto mendiagaz Durangaldeari.

A.I.: Kolore asko sartu dugu eta lanari argitasuna eman gura izan diogu, Andra Mari elizpea nahiko iluna da eta.

Juan, bide luzea duzu aerografian.

J.A.: 90ko hamarkadan hasi nintzen, eta, batez ere, buruko kaskoetan eta motoetan neurrirako lanak egin ditut. Kamioi bat ere margotu nuen, horrek egin zidan ilusiorik gehien. Bezeroak gura nuena margotzeko esan zidan, eta Iron Maiden gaiagaz lotuta egin nuen enkargua. Jaka bakeroa, nikiak... aerografiak denerik margotzeko aukera ematen du. Enkargu bitxi legez, *Laranja mekanikoa* filmagaz lotuta etxe bateko gortinak margotzea eskatu zidaten. Bestalde, iaz Alfa Arte burdinola artistikoan lan egin nuen.

Ageda, JAEDen enkargua izan da zure lanik handiena? Bereziena agian?

A.I.: Bai, eta pozarren nago. Aitari margotutako buruko kaskoa ere oso berezia da niretzat.

Zerk inspiratzen zaituzte?

J.A.: Heavy Metalak, nire bizitza da. Aerografian hasteko, H. R. Gigerrek asko inspiratu ninduen, Alien sortu zuenak. Asko erabiltzen zuen aerografoa.

A.I.: Aerografian Juan izan dut eredu. Maila zabalagoan, azken urteotan inguruan ditudan artistak, lagunak ere badirenak.

Motzean

Egingo zenuketen lana...
J.A.: Kamioi bat, Motörhead gaiagaz; Lemmy Jaunagaz.
A.I.: Disko baten azala.
Durangoko txoko bat?
J.A.: Kurutziaga kalea, bertan jaioa naiz.
A.I.: Pinondo.
Lanerako, isiltasuna ala musika?
J.A.: Heavy metala topera.
A.I.: Musika.

